


eman ta zabal zazu



UPV EHU

ZUZENBIDE GRADUA
2022/2023 IKASTURTEA
GRADU AMAIERAKO LANA

'Diru sarrerak bermatzeko errenta: eraginkortasunetik kontrolera'

Egilea: Olatz Ortiz de Orruño Higuera

Zuzendaria: Jose Ignacio Cubero

AURKIBIDEA

1.	Sarrera	4
2.	Eskubide Sozialak	5-9
3.	Dirua bermatzeko errenta eskubide sozial moduan	10-12
3.1.	Eskumen banaketa.....	12-16
3.2.	Araudia	-.....16
3.2.1.	Estatuaren araudia	16-19
3.2.2.	Autonomi Erkidegoen Araudia	19-21
4.	Eskubidearen onuraduna	21
4.1.	Indibidualtasuna eta bizikidetzaren unitatearen trataera	21-24
4.2.	Bete beharreko baldintzak	24
4.2.1.	Errolda eta Bizilekua	24-27
4.2.2.	Beharrian egoeraren interpretazioa	27-29
4.2.3.	Baldintzen eraginkortasunaren inguruko hausnarketa	29-31
5.	Euskal Autonomi Erkidegoan 14/2022. urteko legeak ekarritako aldaketak.....	31-32
6.	Prestazioaren gaineko administrazioaren kontrola	32
6.1.	Kontrol instrumentala	32-35
6.2.	Kontrolaren ondorio nagatiboak	35
6.2.1.	Intimitate eskubidea	35-41
6.2.2.	Entzunaldirik gabeko diru itzulketak: <i>A posteriori</i> kontrola	42-47
6.3.	Koordinazio lanen hobekuntza: Lanbide eta Gizarte Segurantza.....	47-49
7.	Ondorioak	49-52
8.	Bibliografia	53-57

ERABILITAKO LABURDURAK

AAEE: Autonomi Erkidegoa

AG: Auzitegi Gorena

AN: Auzitegi Nazionala

EK: Espainiako Konstituzioa

EAE: Euskal Autonomi Erkidegoa

GS: Gizarte Segurantza

JAN: Justizia Auzitegi Nagusia

KA: Konstituzio Auzitegia

KAE: Konsituzio Auzitegiaren Epaia

LO: Lege Organikoa

OJ: Oinarri Juridikoa

1. SARRERA

Azken urteetan mundu mailan eragina izan duen osasun krisiak aurretiaz zegoen gizarte krisi ekonomiko, eta kulturala erabat nabarmendu du. Izan ere, honen ondorioz sortutako lan eskasia, bazterketa eta ezberdintasun soziala oso nabaria izan da¹.

Testuinguru honetan eskubide sozialen eraginkortasun eta galdagarritasuna gero eta garrantzi gehiago eskuratu du. Agerian geratu baita botere publikoek giza eskubideak bermatzeko duten betebeharra. Bereziki, bizirauteko ezinbestekoak diren gutxieneko baliabideak jasotzeko bermearen beharra azpimarratuz.

Hori horrela, Espainiar estatuak gutxieneko diru sarrerak bermatzeko prestazioa martxan jarri du. Helburu argia izanda: pobrezia ekiditea. Ondorioz, AAEE batzuk gizarte laguntzaren markoan zeukaten nagusitasuna banatu izan da administrazio publikoen artean. Estatu mailan egon den ekimen legegileari erantzun egoki bat emateko aurretiaz AAEEtan indarrean zeuden gizarte laguntza sistemak eraberritzea ekarri du, erreforma politiko hauek eskubide sozialak garatu eta bermatzeaz aparte, duintasunez bizitzearen aldeko tresna juridiko bezala aurkeztu direlarik.

Lan honen bitartez pobreziari aurre egiteko egun indarrean dauden tresna juridikoak aztertuko dira, Euskal Autonomi Erkidego mailan gai honetan indarberritu den legearen azterketa nabarmenduz. Oinarriak ezartzeko ezinbestekoa izango da gaur egun eskubide sozialek orokorrean duten eraginkortasun eta galdagarritasun juridikoa adieraztea. Behin oinarriak finkatuta gizarte bazterketa ekiditzeko dauden tresnak aipatuko dira. Horretarako administrazio bakoitzak gizarte laguntzan eta gizarte segurantzian duen egikaritzea maila argituko da, politika bakoitzak zein eremutan duen indarra zehaztuz. Gainera, EAEn lege berriak ekarritako aldaketa batzuk adierazteaz aparte, duintasunez bizi ahal izateko galdagarriak diren ezaugarriak aipatuko dira. Azkenik, diru sarrerak bermatzeko errentaren

¹XII informe: *El estado de la pobreza en España. Seguimiento de los indicadores de la agenda UE 2030. 2015-2022*. Pobrezia eta gizarte bazterketa neurtzen duen tasaren (AROPE) arabera 2021. urtean Espainiar estatuko biztanleriaren %21,7a pobrezia arriskuan zegoen. Modu berean, %8,3ak gabezi material larria pairatzen du. ELÍAS ORTEGA, Á. (2018). *Prestaciones sociales y reparto justo de la riqueza*. Lan Harremanak - Revista De Relaciones Laborales. 76. orrialdea. ELÍAS ORTEGA A. RINCÓN GARCÍA L. (2016) Algunas virtualidades de la Renta Básica. Centro de Documentación Hegoa. Boletín de Recursos de Información Nº 48. 4. orrialdea.

eraginkortasunaren izenean administrazioaren aldetik burutzen den kontrolaren inguruko analisia burutuko da.

Lanaren helburua, pobrezia ekiditzeko baliabide juridikoek zenbaterainoko eraginkortasun praktikoa duten aztertzea izango da. Aldi berean, bazterketa sozialak askotan ahalbidetzen duen kontrol publikoaren gaineko hausnarketa burutuko delarik.

2. ESKUBIDE SOZIALAK

Estatuak botere publikoen esku hartzearekin herritarrei gizartearen baliabideetan parte hartzeko aukera ziurtatzen die, eskubide sozialen bitartez. Gizartean bizitzeak ekarritako ezberdintasun ekonomiko kultural eta sozialen aurrean oreka bat lortu ahal izateko estatua bitartekari moduan azaltzen da, eskubide sozialak desoreka horri aurre egiteko tresna moduan aurkeztuz.²

Hori horrela, bi adiera eskuratzen dituzte eskubide sozialek. Ikuspuntu objektiboak adierazten duen moduan, estatuak garatzen dituen arauen multzoa osatuko lukete. Arau horiek gizarte oreka lortzera zuzenduta egongo direlarik. Zentzu honetan, EKren lehenengo tituluaren hirugarren kapituluan adierazitako eskubideen ondorioz sortutako legeak genituzke.

Aldiz, ikuspuntu subjektibo batetik pertsona edo talde zehatz bati gizarte bizitzak ekarritako onuretan parte hartzeko aukera izango litzateke. Horrenbestez, egoera kaltegarrian dagoen herritarri zeharkakoak edo zuzenak diren prestazio eta eskubideen bitartez gainerako gizarteak gozaten dituen aukeretan parte hartzeko aukera aitortzen zaio, berdintasuna lortu ahal izateko.

Interpretazio honek zuzeneko lotura dauka ekitatearen kontzeptuarekin. Izan ere, EKren 9.2. artikulua herritarren arteko funtsezko berdintasun materiala du helburu³, bakoitzaren baliabide eta gizarte egoera zein den kontuan hartu gabe⁴. Hau lortzeko ezinbestekoa izango

² PÉREZ LUÑO A.E.(2009) *Los derechos Sociales como una exigencia de la justicia*. Madrid: Universidad de Alcalá. 43. orrialdea

³ MONEREO PÉREZ, J.L., RODRÍGUEZ ESCANCIANO, S. y RODRÍGUEZ INIESTA, G. (2023) «*Los nuevos retos de la protección de las personas dependientes tras las sucesivas reformas: dependencia como derecho social, economía de cuidados de larga duración y Sistema para la Autonomía y atención a la Dependencia*». Revista Crítica de Relaciones de Trabajo, Laborum. nº 6. 38. orrialdea.

⁴ Zentzu horretan KAE 39/1986. urteko martxoaren 31koa 3.OJ.

delarik botere publikoen esku hartzea. Izan ere, gizarte ezberdintasunen aurrean, arau berezi eta ‘zuzentzaileak’ sortu ahal izango dira Konstituzio bitartez norbanako bakoitzari bermatutako askatasun eta eskubideen gozamen eraginkorra ziurtatu ahal izateko⁵, baita muturrekoak diren ezberdintasun egoerak desagerrarazteko ere⁶. Gainera, atal honek EKren 14. artikuluan aurreikusten diren berdintasunaren eta askatasunaren oinarritzko eskubideak errealitate praktikora ekartzen ditu. Izan ere, honen bitartez eta berdintasun materialaren eskubidearen izenean, gizarte mailan historikoki gehien baztertu diren kolektiboei ‘trataera ezberdin’ bat eskaintzeko aukera aurreikusten da. Honek ez duelarik diskriminaziorik sortuko, ondorioz berdintasun formalaren eskubidea errespetatuko da modu berean. Azken finean, berdintasun materiala lortu ahal izateko trataera ezberdina eskaini behar zaio egoera bakoitzari, gizabanako bakoitzak dituen aukera eta baliabideak ez baitira berdinak. Beraz, botere publikoek sortutako arauen bitartez trataera formal ezberdina eskaini ahal izango zaie herritarrei haien egoera materiala berdintzeko xedearen babesean. Honek ez du tratu diskriminaziorik sortuko baizik eta agerikoa den ezberdintasun egoera leuntzen lagunduko du⁷.

Eskubide sozial baten eraginkortasunari buruz hitz egin ahal izateko ezinbestekoa izango da hau garatzen duen lege bat egotea. Izan ere, Konstituzioan eskubide sozial baten aitortpen hutsak ez du honen materializazio zuzena ahalbidetzen. Horrenbestez, legea eskubide hauen berme bihurtzen da⁸, honen garapena ez delarik derrigorrezkoa izango botere publikoentzat.

Botere legegilea eskubide sozialak errealitatera ekartzeko zubi bezala plantzeatzen da. Hala ere, azpimarratu beharra dago legegilearentzat eskubide hauen garapena betebeharrak moduan aurkeztzen dela nazioarte mailan, ezin baita ideologia politiko ezberdinen esku utzi hauen arauketa. Horrela adierazi izan du NBERen Eskubide Ekonomiko Sozial eta Kulturalen Batzarrak⁹. Alegia, estatu baten Konstituzioan aitortutako eskubide oro lege bidez garatu beharra dago, eskubidearen izaera, soziala zibila edo politikoa den kontuan hartu gabe. Ondorioz, baieztatu daiteke ordenamendu juridiko batean aitortutako eskubideak ezin direla

⁵ EGÍO GARCÍA V.M, MEDINA RUÍZ E. (2020) Del paradigma funcionalista a la teoría del conflicto: Estado del Bienestar, agentes de orden y aliados del cambio en tiempos del Covid-19. *La Razón Histórica*, n. 46. 98. orrialdea

⁶ Zentzu horretan KAE 19/1988 otsailaren 17koa 10. OJ.

⁷ Zentzu horretan KAE 216/1991. urteko azaroaren 14ko 5. OJ.

⁸ Zentzu horretan EKren 53.3. artikulua: Jurisdikzio arruntean halakoak alegatu ahal izateko, nahitaezkoa da haiek garatzen dituzten legeak aintzakotzat hartzea.

⁹ GARCIA SCHWARZ R. (2011) *Derechos Sociales: Imprescindibilidades y Garantías*. Navarra. Editorial Aranzadi, SA. 80. orrialdea.

eraginkorrak izan bakarrik ordenamendu juridiko horrek aurreikusi duen mekanismo juridikoa jarraituz.¹⁰

Hala ere, eskubideen arteko ezberdintasunak ezartzerakoan, oinarrizko eskubide eta eskubide sozialen arteko ezberdintasuna defendatu egin da. Izan ere, oinarrizko eskubideak eskubide zibil eta politiko moduan norbanakoaren askatasuna bermatzeko balio dute. Askatasunaren kontzeptua bi dimentsio bereganatzen dituelarik. Alde batetik, eremu pribatua borondatearen arabera jardun ahal izateko, hirugarrenek edo botere politikoek ezartzen dutena bakoitzaren erabakietan eragin zuzena izan ez dezan. Bestetik, askatasun positibo moduan, norberak bere eremu pribatua nahi duen moduan jokatu dezan, autonomia pribatua alegia.

Giza eskubideek elkarren arteko dependentzia eta zatiezintasun ezaugarriak dituzte. Izan ere, bizitza duina lortu ahal izateko ezinbestekoa da eskubideak batasunean egikaritu ahal izatea. Norbanako batek bere bizitza pribatua borondatearen autonomia printzipioaren arabera jardun ahal izateko nahitaezkoa du eskubide zibilen egikaritzea, hartutako erabakien gainean hirugarrenek edo estatuak inolako parte hartzerik izan ez dezaten. Hala ere, eremu pribatu horretan aurrera eramaten diren ekintzak kultura, gizarte-harreman, ekonomia, eta politikarekin dute zerikusia. Aukerak anitzak diren arren denek dituzte bi ezaugarri amankomun: norberaren garapen pertsonala ziurtatzeko funtsezkoak izateaz aparte, ondare gaitasunarekin dute lotura zuzena. Izan ere, egungo gizartean merkatuak duen nagusitasunak oinarrizten ditu norberaren eremu pribatua hartutako erabakiak. Puntu honetan bateratzen dira eskubide zibilak eta sozialak. Lehenengoak eskaintzen duten askatasunaren gozamina bermatu ahal izateko estatuaren esku hartzea ezinbestekoa izango delako, merkatuaren arabera eta horren ondorioz sortutako baliabideak ez direnean nahikoak gizabanakoaren garapen pertsonala bermatu ahal izateko¹¹.

Hori horrela, ezinezkoa izango da eskubideen arteko hierarkia bat ezartzea, honek eskubide batzuk besteen aurrean lehentasuna izango dutela adieraziko lukeelako. Hortaz, gizarte mailan eraginkortasun juridiko eta materiala lortu ahal izateko ezinbestekoa izango da eskubideak bloke moduan interpretatzea.

¹⁰ GARCÍA SCHWARZ R. (2011) *Derechos Sociales: imprescindibilidad y Garantías*. Navarra. Editorial Aranzadi, SA. 79. orrialdea

¹¹ ABRAMOVICH V. COURTIS C. (2002) *Los derechos sociales como derechos exigibles* Madrid: Editorial Trotta. 49-51. orrialdeak.

Hala ere, giza eskubideen kategorizazio juridiko eta politikoa burutzerako unean oso ohiko da eskubideen arteko ezberdintasun bat ezartzea. Alde batetik eskubide zibil eta politikoak ezartzen dira, askatasun indibiduala lortzeko ezinbesteko ezaugarri bezala. Bestetik, eskubide sozialak, bigarren plano betean kokatzen direlarik gizarte berdintasuna eta solidaritatearen isla baitira. Askotan interpretatu izan da lehenengo multzoan kokatzen diren eskubideak bigarren taldeko eskubideen eraginkortasun materiala aurrera eraman gabe egikaritu daitezkeela.

Ikuspuntu juridiko batetik aztertuta argi dago Espainiako ordenamendu juridikoan bi multzo hauen arteko ezberdintasuna. Hala ere, eguneroko bizitzan eskubideen arteko lotura zuzenak daude etengabe, guztiek izate arrazoi edo iturri berdina baitute: giza duintasuna.² EKren 1.1. artikuluan estatuaren izaera soziala adierazteak askatasuna eta berdintasunaren ondasun juridikoen elkarren arteko dependentzia islatzen du, horrela banako bakoitzaren askatasuna handituko baita, eskubide zibilen arteko berdintasuna bermatu ahal izateko.

Eskubideen arteko ezberdintasunak alde batera utzita, abiapuntua legegilearen betebehara araugilea da une oro. Baina, errealitatean Espainiako Konstituzioan aitortutako eskubideei lehentasun ezberdina eskaini zaie. Horrela, eskubideak bi multzotan banatzen dira. Alde batetik, oinarrizko eskubideak ditugu (EK lehengo tituluaren bigarren kapitulua). Hauetan, legegileak gutxieneko eduki bat garatzeko betebehara burutu du, bakoitza dagokion lege mailako arauen bitartez garatuz. Kasu honetan arestian azaldutako betebehara legegilea Konstituzioak berak onartu eta arautu egiten du 53.1. artikulua bitartez.¹²

Bestalde, eskubide sozialak daude (EK lehenengo tituluaren hirugarren kapitulua). Hauetan aldiz, Konstituzioak ez du legegilearen arauketa betebehara moduan planteatzen 53.3. artikuluan, eta honek eskubide hauen arauketa irizpidekotasunera eramaten gaitu, legegilearen nahi eta xede politiko hutsek gidatuko baitute eskubide sozialen aintzatespena. Hortaz, ‘babes ahula’ duten eskubideak liriateke bi arrazoi nagusi direla eta. Hasteko, hauen arauketa legegilearentzat erabat askea delako. Honek inplizituki bigarren ondorio bat suposatzen duelarik: eskubide hauen egikaritzea zuzena ezin da epaitegi eta auzitegietan

¹² Zentzu honetan, EK 53.1: Titulu honen bigarren kapituluan aitorturiko eskubide eta askatasunak lotesleak dira botere publiko guztientzat.

galdatu aurretiaz legegilearen borondatea ez bada adierazi¹³. Nahiz eta botere publikoek edo subjektu pribatu batek eskubide sozial bat urratu, hori ezin izango da auzi baten objektu izan aurretiaz legegileak ez badu eskubide horren lege bidezko arauketa burutu¹⁴. Egoera honek nahitaezkoa den positibismo juridiko bati egiten diolarik erreferentzia¹⁵.

Krisi ekonomikoek, eragin zuzena dute eskubide sozialen eraginkortasunean¹⁶. Izan ere, 2008. urtean edo 2020. urtean eztanda egindako krisiek zeresan handia izan zuten hauetan. Gaur egun, oinarrizko eskubide ekonomiko eta kulturelek zuzeneko lotura dute prozesu ekonomikoekin¹⁷. Prozesu ekonomikoa hasiera batean gizarte politikoaren helburuak lortzeko bitartekari moduan erabiltzen ziren arren gaur egun, gizarte politikoaren helburua prozesu ekonomikoan murgiltzea izango delako, ‘merkatuaren legearen onarpena’ delakoa ematen da.¹⁸ Izan ere, kapitalismoaren eskutan utzi izan da askotan eskubide hauen egikaritzea, ekonomiak krisia pairatzen duen unean zuzeneko eragina izango duelarik ongizate estatuek aurreikusitako oinarrizko bermeen gainean¹⁹.

Sortutako desoreka ekonomikoari aurre egiteko ezinbestekoa izan da botere publikoen esku hartzea. Zentzu horretan diru errentak bermatzeko prestazioak jarri dira martxan Espainian baita AAE Ego mailan ere. ‘Desmerkantilizazio’ eskubide moduan aurkezten delarik, giza duintasuna bermatzeko tresna den heinean. Prestazio hauek lege bitartez garatuak izan dira, eskubide sozialen markoan hain zuzen ere. Horrenbestez, bere eraginkortasuna aztertu beharko da jakitearren zenbaterainoko neurrian babesten duten duintasunez bizitzeko eskubidea, zuzenean lotura baitauka oinarrizko eskubideen garapen egokiarekin. Hala ere, azpimarratuz tresna hau erabaki legegilearen menpe egon dela beti, ez baita betebeharr

¹³ BOGDANDY A. UGARTEMENDIA J.I. ARNAIZ SAINZ A. MORALES-ANTIONAZZI M. (2012) *‘La tutela jurisdiccional de los derechos: Del constitucionalismo histórico al constitucionalismo de la integración’*. Bilbao: IVAP 108. orrialdea

¹⁴ ANSUÁTEGUI F.J. et al. (2009) *Los derechos sociales como una exigencia de la justicia*. Madrid: Universidad de Alcalá. 209. orrialdea.

¹⁵ PACHECO RODRIGUEZ M.A (2017) Exigibilidad de los derechos sociales: algunas aportaciones desde la teoría del derecho. Universidad de Castilla La-Mancha. 269. orrialdea

¹⁶ SÁNCHEZ MEDERO G. TAMBOLEO GARCÍA R. (2013) ‘Política y derechos sociales en tiempos de crisis en España’ Madrid: Revista Castellano-Manchega de Ciencias Sociales. 244. orrialdea.

¹⁷ LONGAS J.C. (2022) *Economía: la excepcionalidad como impulsora de cambios estructurales en la Comunidad Autónoma Vasca y Navarra* Oñati Socio-Legal series volume 13: Innovación legislativa en tiempos de excepcionalidad. 266. orrialdea.

¹⁸ PÉREZ LUÑO A.E. (2009) *Los derechos sociales como una exigencia de la justicia*. Universidad de Alcalá 37. orrialdea.

¹⁹ FORNS FERNANDEZ M.V. (2020) ‘La garantía de una renta básica de ciudadanía como instrumento del Estado del Bienestar en transformación’ Tarragona: Revista de Investigación Constitucional. 11-58. 49. orrialdea.

moduan aurkeztu ordenamendu juridikoan, nahiz eta duintasuna gizakiari atxikitzen zaion oinarrizko eskubide bat izan.

3. DIRUA BERMATZEKO ERRENTA ESKUBIDE SOZIAL MODUAN

Konstituzioaren 41. artikulua botere publikoei betebeharrak ezartzen die: herritarrak langabezi egoeran daudenean edo beharrezan ekonomikoak pairatzen dituztenean administrazioen eskutik prestazio eta gizarte laguntzak jasotzeko eskubidea izango dute. Hau da, gizarte babes moduan pobrezia erantzun bat emango diote botere publikoek, bereziki langabeziak sortutako gizarte-bazterketari.

Tresna politiko eta juridiko hauek askotarikoak dira, hala ere oinarri berdina dutela baieztatu daiteke²⁰. Babes mailari dagokionez, bermea eskaintzen duen organoaren arabera ezberdina izango da. Alde batetik GSren ez kontributiboa den modalitatean sartzen diren prestazioak (bizirauteko gutxieneko diru sarrerak, langabeziagatiko prestazioak edo ezgaitasunaren ondorioz sortutakoak) daude. Bestetik, AAEEK zuzenean eskaintzen dituzten gizarte laguntzak eskatzeko aukera dagoelarik.

Arestian aipatu moduan, eskubide sozialen taldean sartzen da EKren 41. artikulua. Horrenbestez legegileari ez zaio modu inperatiboan aurkeztu eskubide horren garapena. Hori horrela, estatu mailan ez da egon ekimen legegile handirik materia honetan eta gehienbat Autonomi Erkidegoen eskutan geratu den gizarte laguntza baten aurrean gaudela esan daiteke²¹. AAEE bakoitzak bere politiken arabera probeziari aurre egiteko tresna juridiko ezberdinak garatu izan dituzten arren, hainbat ezaugarri amankomun dituzte²².

Hasteko, dirua bermatzeko errenta ezin da ulertu eskubide unibertsal moduan²³. Alegia, estatuko edo AAEE bateko herritar izateak ez du inplizituki eskubide onen onuradun edo titular izatea suposatzen. Hau da, pertsona bakoitzaren (aurrerago zehaztuko den moduan, gehienetan ez da pertsona izango baizik eta bere bizikidetzaren unitatea) ezaugarri ekonomikoei

²⁰ DE LA CAL M.L. (2014) *La garantía de rentas mínimas en el estado Español. Especial Referencia a la RGI Vasca*. Huelva: Universidad de Huelva. 113. orrialdea.

²¹ MALGESINI, G. (2014): Informe sobre los sistemas de rentas mínimas en España, European Minimum Income Network. Comisión Europea. 52. orrialdea.

²² MONEREO PÉREZ J.L. et al. (2021) *Renta Mínima y Democracia sustantiva: De los 'derechos de pobreza' a los de 'ciudadanía social'* Jaen: Editorial Universidad de Jaén. 19. orrialdea

²³ PEÑA MIGUEL N. DE LA PEÑA J. FERNANDEZ-SAINZ A. (2017) *¿Es posible financieramente un pilar básico de previsión social para Euskadi? Factores claves*. Bilbao: Universidad del País Vasco. 70. orrialdea

erreparatuko zaie eskubidearen onuradun edo titular izateko. Gehienetan baliabide ekonomikoak ez dira nahikoak izango eskubidea gozatu ahal izateko, izan ere gutxieneko adin bat eskatu ohi da prestazio hauetan. Laburbilduz, erabat subjektiboa den eskubide baten aurrean gaude, ezaugarri pertsonalek baldintzatuko dutelako botere publikoen aldetik jaso daitekeen laguntza.

Gainera, prestazio hauek normalean estruktura juridiko nahasia izaten dute, bi arrazoi nagusiengatik²⁴. Alde batetik, eskubidearen titularraren eta laguntza eskainiko duen administrazio zehatzaren arteko hitzarmenak sortzen direlako. Akordio hauek eskubidearen titularra izango dena lotzen dute dagokion prestazioa jasotzen jarraitu ahal izateko. Hortaz, behin prestazioa jasotzeko eskubide indibiduala dagoela onartuta betebeharrak zehatzak ezartzen zaizkio onuradun edo titularrari laguntza ekonomikoa izaten jarraitu ahal izateko, hitzarmena ez betetzeak laguntza ekonomikoa galtzea suposatuko duelarik. Bestalde, administrazioak gutxieneko errentaren prestazioa onartzen dien pertsonen prestazio hau jasotzeko eskubidea errealaren ziurtatu ahal izateko, kontrol nabaria gauzatzen du aurrera eramandako gastuetan, etxebizitza ikuskatzen eta abarretan. Beharrezan ekonomikoa errealaren dela ziurtatzeko justifikazioarekin administrazioak burututako ikuskaritzak etengabeak dira.

Beraz, errenta jasotzeko eskubidearen aitorpenak ez du asetzen eskubidearen egikaritzea. Baizik eta hau gozaten jarraitu ahal izateko titular eta onuradunek kontrol publiko baten menpe geratu behar direlako laguntza jaso bitartean.

Gorago aipatu bezala, prestazio hauek eskubide subjektibo bati erantzuna ematen dioten arren kontuan hartutako ezaugarriak ez dira pertsonalak izaten, eremu zabalago bat hartzen baita kontuan: bizikidetzaren unitatea hain zuzen ere. Hortaz eskubideak ez du soilik hedapen indibidual bat baizik eta kolektiboa.

Azkenik argi dago tresna juridiko hauek pertsonak gizarteratzeko aurreikusten duten bide bakarra lanaren bitartez dela. Gizartearen parte izateko biderik zuzenena, eta bakarra politika hauetan, lanaren bitartekoa dela adierazi dute mekanismo hauek. Horrenbestez, prestazioaren kantitate ekonomikoa gaintzen duen lan bat lortzeak prestazioa bertan behera geratzea

²⁴ MONEREO PÉREZ J.L (2021) 'El derecho social al ingreso mínimo vital' Universidad de Granada: temas laborales. 158/2021. 48. orrialdea.

suposatuko du. Hau da, lan bat lortzea da pobrezia aurre egiteko planteatzen den konponbide nagusia. Hala ere, gaur egun baieztatu da merkatuak ezarritakoaren arabera gizakiak beharrezkoak dituen baliabideak lortzea batzuetan ez dela posible. Beraz, merkatua gizabanakoaren duintasunaren bermatzaile ez denez, estatuaren laguntza agertzen da hemen. Lanak eskaintako baliabideak nahikoak ez direnean, botere publikoek aitortutako gutxieneko errentak ezinbestekoak izango dira. Lan munduan barneratua egoteak gizarte bazterketa sufritzeko aukerak erabatean desagerraraziko balitu bezala. Izan ere, dirua bermatzeko errenta ez-ohiko babesa aurkezten den bitartean, legegilearentzat ohikoa den jarrera bakoitzaren beharrianak enpleguak eskaintzen dituen sarrerekin asetzea lizateke²⁵. Hala ere, lana izateak ez du pobrezia ekiditzen beti, lan prekario askok ez dute ahalbidetzen gizabanakoak beharrezkoak dituen elementu materialak jasotzea²⁶, beraz egoera hauetan botere publikoaren laguntza ezinbestekoa izango da.

4.1. Eskumen banaketa

EKren 41. artikulua botere publikoei Gizarte Segurantzaren sortu eta mantentzeko betebeharrak ezartzen dien arren betebeharrak neutral moduan azaltzen du, ez baitu inolako eskumen zehatzik esleitzen. Xedapen honek ez du argitzen zein botere publikoren esku geratzen den betebeharrak horren egikaritzea. Hortaz, Gizarte Segurantzaren eta honen erregimen ekonomikoaren eskumen banaketa EKren 149.1.17. artikulua bitartez eramatea da aurrera.

Hasieratik zehaztu beharra dago estatu eta AAEEen eskumenen arteko ezberdintasuna gizarte segurantzaren eta gizarte laguntzari dagokionez: EK 149.1.17 eta 148.1.20 hurrenez hurren. Izan ere bi kategoria ezberdindu daitezke hemen.

Alde batetik GSren barruan kokatzen den laguntza genuke. Honen barruan ez kontributiboak diren pentsio eta prestazioak sartuko lirateke, hala nola jubilazioa eta ezgaitasunak. GSren kutxa bakarra osatzen dutelarik, hauen garapena estatutuaren eskumen eksklusiboa izango da.

²⁵ BOLLAIN URBIETA, J.; RAVENTÓS PAÑELLA D. (2018). «*La renta básica incondicional ante las limitaciones de las rentas mínimas*»; Lan Harremanak. 93. orrialdea.

²⁶ MONEREO PÉREZ J.L. (2020) *La renta mínima garantizada como medida estructural del sistema de seguridad social en la sociedad de riesgo* Revista jurídica de los Derechos Sociales. 431. orrialdea.

Bestalde, AAEEek GSren sistematik kanpo eskaintzen duten laguntza soziala aurkezten da. Eskumen hau modu zilegian egikaritzeko, EKren 1481.1.20. artikulua eskaintzen duen markoan: ezinbestekoa izango da GSak aurreikusitako aparteko babes teknikak sortzea, beti ere estatuak garatu izan duen sistemaren oinarri eta estruktura errespetatzen direnean berritasunak gehitzeko aukera mantenduko dute AAEEek.

Ondorioz, estatuak sortutako prestazioa, GSren gaian sartzen den heinean 149.1.17. artikuluan ezarritako eskumenari ematen dio erantzuna. Modu berdinean, AAEEk gizarte bazterketa ekiditeko dituzten mekanismoak aurreko estatuaren eskumenaren garapen araugileari eta gizarte laguntzan duten eskumenari erantzuna emango dio²⁷.

Esleipena finkatuta GSren eta diru sarrerak bermatzeko errentaren araudia noren esku geratzen den argitu ahal izateko ezinbestekoa izango da aipatzea Konstituzio Auzitegiak emandako 158/2021. urteko epaiaren 3. OJtik aurrera, administrazioen arteko eskumen gatazka positiboa auzipetzen duena hain zuzen ere. Izan ere, honen bitartez gobernu zentralak COVID-19 garaian pobreziari aurre egiteko indarrean jarri zuen 20/2020. urteko maiatzaren 29ko dekretua²⁸ aurkaratu zuen Kataluniako Gobernu autonomikoak, bi artikulutan oinarrituta. Alde batetik EKren 149.1.17. zeinaren bitartez AAEEek GSren materialen duten eskumen betearazlea egiaztatzen den²⁹. Bestalde, AAEEak 148.1.20. artikulua araberako eskuratutako laguntza sozialaren eskumena urratu zelakoan.³⁰

Aurkaratutako dekretuaren helburua argia zen: estatu mailan pobreziari aurre egiteko prestazio komun eta homogeneo bat martxan jartzea³¹. Lehenengo aldiz, bizirauteko gutxieneko errenta GSren babes sistemaren barruan kokatzen den prestazio moduan aurkezten da, estatuak materia honetan duen oinarritzko arauketa eskumenaren atzerapean. Horrela, AAEEak gutxieneko errentaren araudian zituzten neurri politiko ezberdinak gaituzten, gutxieneko berdintasun batera iritsi ahal izateko. Honek ez du esan nahi aurretiaz AAEE eremuan gutxieneko errenta bermatzeko politikak bertan behera geratzen direnik ezta gutxiago ere. Estatuak, EKren 149.1.17. artikulua aitortutako GSren prestazio ez

²⁷ KAE 239/2002. urteko abenduaren 11ko 3. OJ.

²⁸ Real Decreto-ley 20/2020, de 29 de mayo, por el que se establece el ingreso mínimo vital.1 art: «prestación dirigida a prevenir el riesgo de pobreza y exclusión social»

²⁹ Kataluniako Autonomia Estatutua 165.1 a) b) eta e) artikulua atalak.

³⁰ Kataluniako Autonomia Estatutua 166. a) eta c) artikulua atalak.

³¹ DELGADO DEL RINCÓN L.E (2022) *El derecho de la prestación social del ingreso mínimo vital: algunas consideraciones sobre sus elementos y problemas competenciales*. UNED: Revista de Derecho Político N 116, enero-abril, 47-76. 70. orrialdea.

kontributiboa sortzean gutxieneko oinarritzko arauketa bati erantzuna ematen dio. Horrela, herritarren arteko berdintasun minimo batera iritsi ahal izateko, estatuak pobrezia egoeratan esku hartzeko duen betebeharra, EK 41. artikulua, lege mailako arauarekin erantzunez.

Eskumen markoa behin betiko finkatzen da epaiaren laugarren oinarri juridikoan. Bi zati ezberdinetan banatu beharra dago EK 41. artikulua: gizarte segurantza eta erregimen ekonomikoa. Gizarte Segurantzaren materiatik hasita, arauketa eskumenean estatua eta AAEEak ditugu. Estatuak, 149.1.17. artikulua abiapuntu moduan hartuta GSa sistema unitario bat bultzatuko du, iturri berdina izango duen prestazio eta eskubide sistema sortuz. Alegia, estatuaren mugen barruan berdintasunez aplikagarria izango den babes sistemak sortzeko ahalmena izango du, interes komunak eta oreka lortu ahal izateko. Izan ere, estatu barruan herritar guztiei arrisku bat sortzen zaienean, pobretzeko arriskua kasu honetan, gobernu zentralak arrisku horri konponbide komun bat emateko tresna juridikoak bereganatzea ezinbestekoa izango da³². Gainera, GSren prestazioak eskuratu ahal izateko baldintzak, mugak eta erregimen juridikoa sortzeko ahalmena ere estatuarena izango da. Hortaz, hauen kudeaketa eredu estatuarena izango da, oinarritzko legerian sartzen baita.

Oinarritzko araudiak bi dimentsio ditu: materiala eta formala³³. Alde batetik eta zentzu material batean, estatu mailan araudi unitario bat ezarri behar izango da EKn aitortutako eskubideak garatzen dituzten araudiari dagokionez³⁴. Beraz, estatu mailan aplikagarri izateko eta gutxieneko berdintasuna bermatu ahal izateko araudiaren sormena administrazio zentralari dagokio. Bestalde, elementu formalari dagokionez: estatuaren ardura da lege bitartez araudi hori garatzea, izan ere, legeak berak araudia oinarritzkoa dela adierazi behar izango du. Horrela, AAEEek gaiaren inguruan sortuko dituzten arauak zilegiak eta juridikoki eraginkorrak izateko ezinbestekoa izango da estatuaren bitartez elementu amankomunak oinarri moduan planteatzen dituzten lege mailako arauak sortzea³⁵.

Behin estatuak gutxieneko edukia sortuta, AAEEak amankomuna den araudia errespetatuz GSren sistematik kanpo hobekuntzak ezarri eta arautzeko eskumena izango dute, EKren 149.1.17. artikulua onduz sortutako oinarritzkoa ez den arauketa garatuz eta 148.1.20.

³² KAE 239/2002 abenduaren 11ko epaia. 8. OJ

³³ Zentzu horretan KAE 132/2019. urteko abenduaren 13koa, 6. OJ

³⁴ Zentzu horretan KAE 48/1988. urteko martxoaren 22koa, 3. OJ.

³⁵ Zentzu horretan KAE 80/1988. urteko apirilaren 28koa. KAE 227/1988. urtekoa. KAE 1/1982. urteko urtarrilaren 28koa 1. OJ.

artikuluaren markoan hain zuzen ere. Arestian aipatu moduan, oinarrizko araudiaren barruan eta AAEEen gaitasun araugilearen muga moduan honako ezaugarriak sartzen direlarik GSren eta prestazioen gaian: laguntza jasotzeko baldintzen aipamena, hauen erregimen juridikoa eta azkenik eskainiko den gutxieneko babesaren determinazioa. Ezaugarri hauek bateratzen dituen definizioa hau izango litzateke: GSren prestazioen kudeaketa-eredua estatuari dagokio³⁶. Behin oinarrizko markoa ezarrita, AAEEek estatuak ezarritako legediaren garapena burutu dezaketelarik. Hobekuntza horiek suposatzen dituzten kostuak haien aurrekontuetara egokituko dira. Modu berean, azpimarratu beharra dago AAEEek gizarte laguntzaren gaian daukaten eskumena (EK 148.1.20) ezin zaiola Estatuari zuzenean esleitu, zentzu berdinean ezin izango delarik toki administrazioaren esku utzi zuzenean³⁷.

Aurreko eskumen banaketak GSren araudiari dagokio, beraz exekuzio boterea gai honetan nori dagokion argitu beharra dago. Kasu honetan, AAEEek modu absolutuan izango dute exekuzio boterea GSren gaian³⁸. Izan ere, estatuak sortutako oinarrizko legediaren ez betetzeen aurrean zehapen ahalmena izango dute. Modu berean, GSren sistema osatu ahal izateko oinarrizkoa den legeetaz aparte hau garatuko duten arau ezberdinak sortzeko ahalmena izango dute. Azpimarratu beharra dago, eskumen betearazlea AAEEen esku egongo den arren, muga argia dutela honen egikaritzan: ezin dute sistemaren batasuna zalantzan jarri, estatuaren titulartasuna zalantzan jarri gabe burutu dezaketelarik bakarrik ahalmen hori.³⁹

GSren erregimen ekonomikoari dagokionez, ahalmen araugilea eta exekuzio boterea modu ezberdin batean banatzen dira estatu eta AAEEen artean. Izan ere, estatuak botere araugilea erabatean egikariturako du, ez bakarrik oinarrizko legeria baizik eta hau garatuko duena ere. Horrela kutxa bakarraren eta finantza-solidaritate printzipioetara eusteko, GSren batasuna bermatzeko. Hala ere, exekuzioari dagokionez hainbat irizpide jarraitzen dira estatu eta AAEEen artean eskumenak banatzeko. Sistemaren batasunaren printzipioari men eginez, estatuak ahalmen exekutiboak bereganatzen ditu GSren barruan dauden errekurtsio ekonomikoekiko baita hauen kudeaketan ere. Alegia, GSren jarduera ekonomikoan zuzenean eragina daukaten eginbeharrak estatuak bereganatzen ditu. Horrenbestez, AAEEek exekuzio

³⁶ Zentzu horretan KAE 128/2016. urteko uztailaren 7koa 9. OJ. KAE 52/2017. urteko maiatzaren 10ekoa 8. OJ

³⁷ Zentzu horretan KAE 41/2016. urteko martxoaren 3ko epaia.

³⁸ *Jurisprudencia constitucional sobre el artículo 149.1 y 2 CE* (2023) Tribunal Constitucional: Secretaría General. 348. orrialdea.

³⁹ KAE 239/2002 abenduaren 11ko epaia. 4.b OJ.

ahalmenak bereganatu ditzakete erregimen ekonomikoari dagokionez, beti ere sistemaren batasuna kolokan jartzen ez denean eta herritarren arteko berdintasuna urratzen ez denean.

Behin argituta GSren gaiaren inguruko eskumen banaketa, arestian aipatu moduan AAEEen eskumen eskusiboa izango da gizarte laguntzaren gaia, EKren 148.1.20. artikulua ezarritako moduan. Izan ere, gai honetan AAEEaren politikak eskuratuko du nagusitasuna estatuaren araudiaren aurrean⁴⁰. Baina, azpimarratu beharra dago, eskumen eskusibo hau ezin dela zentzu hertsian interpretatu, izan ere gizarte laguntza ekimenak ezin dira baztertu Estatuaren, entitate pribatuaren, edo toki administrazioaren eskutik datozenen. Antolamendu hauek EKren 41. artikuluk aurreikusitako eskubidearen barruan baitute jarduteko zilegitasuna. Gainera, AAEEren mugak gainditzen dituzten gizarte beharrei estatuak erantzuna eman beharko die, hala ere beti AAEEk dituzten eskumenen mugak errespetatuz. Azken elementu hau osotasunean betetzen du pobrezia egoerak, doktrinak adierazitako moduan herritarren babesa burutzea Estatuaren funtzioa da⁴¹.

Azkenik, azpimarratu beharra dago gizarte laguntzaren eskumena ez dela bakarrik AAEE eta Estatuaren artean banatzen. Izan ere, toki administrazioek gaiaren inguruan arauketa burutzeko aukera izango dute⁴². Horrela, 7/1985. urteko apirilaren 2ko Toki Administrazioen erregimen orokorra ezartzen den legearen bitartez aukera hau aurreikusten da⁴³. Izan ere, 20000 biztanletik gorako udalerriek gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonen laguntza eskaintzeko baliabideak garatu behar izango dituzte, berehalakoa den laguntza eskainiz. Gainera, gizarte beharren ebaluazio eta informazioa jasotzeko betebeharra ere esleitu zaie⁴⁴. Honi esker, gizarte laguntzaren deszentralizazioa bultzatu da, laguntza behar duen herritarren hurbilen dagoen administrazioak egoerari aurre egiteko baliabideak izan ditzan.

4.2 Araudia

Administrazio publikoek dagokien eskumen markoaren barruan gizarte beharrei aurre egiteko ekimen politikoa izan dute, gizarte bazterketa ekiditzearren tresna juridikoak planteatuz. Gutxienezkoa den oinarri amankomun bat abiapuntu moduan hartu bada ere, administrazio

⁴⁰ KAE 146/1986 azaroaren 25ekoa 5. OJ

⁴¹ KAE 13372019. urteko azaroaren 13koa 4.OJ.

⁴² ZARAUZ J. (2007) *'Incidencia del padrón municipal en el ejercicio de los derechos de las personas extranjeras en situación irregular'* Vitoria-Gasteiz: Ararteko.215. orrialdea

⁴³ 7/1985. urteko apirilaren 2ko legearen 26.1. artikulua c letra.

⁴⁴ Zentzu horretan 14/2022. urteko abenduaren 22ko legearen zioen azalpena

autonomikoak baita toki administrazioek ere gizarte laguntzan garatutako tresnak garrantzi handia dute pobrezari aurre egiterako baliabide publikoen eraginkortasunari buruz hitz egiterakoan⁴⁵.

4.2.1 Estatuaren araudia

COVID-19ak ekarritako krisi sozialari eta sortutako pobrezari aurre egin ahal izateko 20/2020 maiatzaren 29ko lege dekretua indarrean jarri zen Espainiar estatuan.

AAEE guztientzat abiapuntua gobernu zentralak sortutako dekretua izango da beraz. Ez du suposatzen AAEE bakoitzak GSren gaian bereganatutako eskumenak egikaritzeko oztopoa denik ezta gutxiago ere, estatu osoan berdintasun maila minimo batera iristeko nahia besterik ez⁴⁶.

Egun, dekretua indargabetu den arren, krisiak eragindako pobrezia gainditzeko 19/2021. urteko abenduaren 20ko legea jarri da martxan. Dekretuak ezarritako neurrien jarraipen moduan. Pobrezari aurre egiteko, eskubide sozialen presentzia indartuz.

Estatu mailan integrazio sistema homogeen bat ezartzeko nahia adierazi du legeak. Izan ere, autonomi erkidegoek pobrezari aurre egiteko arautu izan dituzten legeek aplikagarritasun mugatua dute, AAEE bakoitzaren barruan hain zuzen ere. Beraz, estatu mailan pobrezari aurre egiteko prestazio ekonomiko bat ezartzeak beharizan egoeran dauden pertsonen diru laguntzen berme moduan aurkezten da, estatu barneko eremu geografikoa zein den kontuan hartu gabe.⁴⁷ Hitz gutxitan, irizpide bateratuak eta minimoak ezartzen ditu.

⁴⁵ BARRAGUÉ CALVO B. (2023) *La red de garantía de ingresos en España en tiempos de crisis. Las rentas mínimas de inserción frente a la alternativa de la renta básica* Estudios de Deusto, Vol. 57/2, Bilbao, julio-diciembre 2009. 63. orrialdea.

⁴⁶ KA irailaren 16ko 158/2021 epaia 4.a OJ. «común denominador normativo» necesario para asegurar la «unidad» fundamental prevista por las normas del bloque de la constitucionalidad que establecen la distribución de competencias

⁴⁷ KA irailaren 16ko 158/2021 epaia 3. OJ. *Con ello se ha instaurado, un «mecanismo de garantía de ingresos de ámbito nacional» que, superando las desigualdades derivadas de las diferentes políticas de rentas mínimas autonómicas, afronta el riesgo general de la pobreza de forma homogénea en todo el Estado por medio de una «red de protección mínima y común de ingresos garantizados por la Seguridad Social»*

Honako hauek dira bizirauteko gutxieneko diru sarrerak bermatzen dituen legearen ezaugarriak. Hasteko, helburu nagusia pobrezia eta gizarte ezberdintasunei aurre egitea litzateke. Hau lortzeko aukera berdintasuna eta errenta minimoa bermatu nahi direlarik.

GSren sistemaren barruan barneratzen den prestazio ez kontributibo baten aurrean gaude, kotizazio betebeharra alde batera uzten delarik. Arestian azaldu bezala, ez da gizarte laguntzaren marko juridikoan sortzen den prestazioa. Estatuaren sistema unitarioa oinarria da. Sistema bakarraren printzipioarekin jarraituz prestazio honen kostua estatuko aurrekontu orokorretatik aterako dela azpimarratu beharra dago⁴⁸.

Prestazioaren kudeaketa GSren barruan egoteak homogeneotasun bati ematen dio erantzuna. Hala ere, AAEEek oinarritzkoa ez den legeria sortu dezakete 149.1.17. artikulua adierazten duen moduan. Beraz, GSKo Instituto Nazionala izango da prestazioren onarpena eta kontrola burutuko duena. Sistema estatu mailan indarra izateak ez du baztertzen estatuko eta AAEEtako administrazioen arteko koordinazio eta kooperazio lana, prestazioa ahalik eta modu eraginkorrean eskaini ahal izateko.

Izan ere, hitzarmenak sinatu ahal izango dira hau bere kudeaketa burutu ahal izateko. Legearen bostgarren xedapen gehigarriak argi adierazten du nola foru ogasun sistema duten AAEEk prestazio honen zerbitzu finantziario eta ordainketa AAEEren esku uzteko aukera dagoela beti ere aurretiaz dagokion hitzarmena sortzen bada.⁴⁹ Horrenbestez, sistema zentrala izan arren EAE eta Nafarroako administrazio publikoek prestazio honetan parte hartzeko aukera izango dute, exekuzioa bereganatuz. Hori horrela, estatu eta EAERen arteko akordioa sortzen da administrazio lanak elkarren artean banatzeko: martxoaren 30eko 253/2022 ordena⁵⁰ zeinaren bitartez estatu eta EAeko komisio misto baten bitartez administrazioen arteko kooperazioa ezartzen den, bakoitzaren egikaritze markoa zehaztuz. Izan ere

⁴⁸ DIAZ MORDILLO M.A. (2020) El Ingreso Mínimo Vital como reto social: una visión práctica Cáceres: Revista Internacional de la Protección Social 2020 Vol. Nº 2. 40. orrialdea- RAMOS QUINTANA M.I (2020) El ingreso mínimo vital como instrumento para combatir la pobreza y la exclusión desde el sistema de la Seguridad Social. Revista Hacienda Canaria Nº53. 304. orrialdea.

⁴⁹ Ley 19/2021, de 20 de diciembre, por la que se establece el ingreso mínimo vital. Bostgarren xedapen gehiagariaren arabera. *En razón de la especificidad que supone la existencia de haciendas forales, en relación con esta prestación, las comunidades autónomas de régimen foral asumirán, con referencia a su ámbito territorial, las funciones y servicios correspondientes que en esta Ley se atribuyen al Instituto Nacional de la Seguridad Social*.

⁵⁰ Orden TER/253/2022, de 30 de marzo, por la que se publica el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias Administración del Estado-Comunidad Autónoma del País Vasco, de 16 de marzo de 2022, de establecimiento del convenio para la asunción por la Comunidad Autónoma del País Vasco de la gestión de la prestación no contributiva del ingreso mínimo vital.

administrazioen arteko hitzarmenak botere publikoen arteko koordinazio lanak eta harremanak bideratzeko tresna erabilgarria da⁵¹. Honen arabera, EAEk bere gizarte zerbitzuen bitartez, Lanbide, prestazioari dagokion espediente administratiboa hasi eta izapidetzeko eskumena bereganatzen du.⁵²

Eskubide subjektibo perfektu moduan definitzen da. Onuraduna izateko ez baita eskatzen inolako aurretiazko lotura GSren sistemarekin. Hau da, ez da ezinbestekoa prestazioa eskatu baino lehen kotizazioa, afiliazioa edo altan emanda egotea. Automatizazio printzipioa izango da prestazioa eskaintzeko oinarria eta bete beharreko baldintzak honako hauek izango dira: legeak ezartzen dituen terminoetan beharrian egoera aitortzea eta Espainiako estatuan legezko bizilekua izatea.

Prestazioaren zenbatekoak erabateko lotura izango du onuradunak eta bere bizikidetzaren unitateak duen gaitasun ekonomiko errealekin. Alegia, laguntzaren zenbatekoa aldatuko da eskatzaileak dituen diru sarreraren eta ondarearen arabera. Diru sarrerek baldintzatuko dute prestazioaren kantitate zehatza.

Behin prestazioa onartuta behin betikoa izango da, beharrian egoera desagertzen den arte. Estatuak eskainitako babesa kantitate ekonomiko batean ekartzen da errealitatera, titularrak hilabetero jasoko duena.

Prestazio honen asmoa ez da aurretiaz diru sarrerak bermatzeko errenten mekanismoak bertan behera uztea. Ezin da ordezkatu AAEEak eskaintzen dituzten gizarte laguntza prestazioekin. Hau bereziki garrantzitsua da. AAEEak aplikagarri dituzten gizarte laguntzeko prestazioaren eskaera tarteratu baino lehen, beharrian egoeran dagoen pertsonak ezinbestean GSren sisteman barneratuta dagoen diru laguntza eskatu behar izango du.

4.2.2 AAEEen araudia

⁵¹ RODRIGUEZ DE SANTIAGO J.M. (1997) *‘Los convenios entre Administraciones Públicas’*, Madrid: Marcial Pons, 19. orrialdea.

⁵² DELGADO DEL RINCÓN L.E (2022) *El derecho de la prestación social del ingreso mínimo vital: algunas consideraciones sobre sus elementos y problemas competenciales*. UNED: Revista de Derecho Político N 116, enero-abril, 2023. 59. orrialdea.

Espainiar Konstituzioaren 148.1.20. artikulua araberako AAEEak gizarte laguntzaren gaian eskumenak bereganatu ditzakete. Eskumen honek EKren 41. artikulua aurreikusitako beharrezko egoeratan herritarrei laguntza eskaintzeko administrazio publikoen betebeharrari erantzuna ematen dio, daogkion estatu eta AAEEren arteko funtzioen banaketa egokia gauzatuz.

Hau oinarri moduan hartuta, hainbat AAEEek, hala nola: EAE⁵³, Katalunia⁵⁴ edo Andaluzia⁵⁵ diru sarrerak bermatzeko sistema bat garatu izan dute. Xede berdina partekatuz: pobrezia eta langabezia ondorioz sortutako banaketa sozialari aurre egitea, administrazio publikoaren bitartez laguntza ekonomikoak jasotzeko aukera zabalduz. Abiapuntu berdina oinarri moduan harturik AAEE bakoitzak izen ezberdinekin tresna juridiko anitz jarri dituzte martxan, guztiak gizarteratzeko gutxieneko errenten modeloaren barruan sartzen direlarik.

Pobrezia aurre egiteko sistemak haien artean ezberdinak eta heterogeneoak diren arren bi oinarriko ezaugarri amankomun dituzte elkarren artean⁵⁶. Izan ere, ezinbestekoa izango da laguntza honen onuraduna izateko hainbat ezaugarri betetzen direla egiaztatzea, hala nola: eskatzailea eta bere bizikidetzaren unitatearen beharrezko egoera, eta honi aurre egiteko baliabide nahikorik ez dagoela egiaztatzea. Hortaz, AAEEen artean modelo aniztasunak oinarri berdina du beti: pobrezia aurre egiteko tresna eskubide subjektibo baldintzatu moduan aurkezten da. Honako baldintzak eskatzen direlarik gehienetan: baliabide ekonomikoaren faltan egotea, eskubidearen titular izateko adin tartea zehatz batean egotea, dagokion AAEEko lurraldean erroldatua egotea prestazioa eskatu baino lehen, langabezia aurre egiteko mekanismoen parte izateko adostasuna hartzea eta enplegu eskatzaile moduan inskribatuta egotea.⁵⁷

Gainera, onuradunak jaso ditzakeen errentekin alderatuz, administrazio publikoek aurreikusitako laguntzaren izaera ‘azken errekursoarena’ izango da. Izan ere, hau eskatu baino lehen, bizikidetzaren unitate bakoitzak bere egoera ekonomikoa hobetzeko dituen aukera eta akzio guztiak, publikoak zein pribatuak, agortu beharko dituelako.

⁵³ 14/2022. urteko abenduaren 22ko Legea.

⁵⁴ 14/2017. urteko uztailearen 20ko Legea ‘*de la renta garantizada de ciudadanía*’.

⁵⁵ Decreto-ley 3/2017, de 19 de diciembre, *por el que se regula la Renta Mínima de Inserción Social en Andalucía*

⁵⁶ MONEREO PÉREZ J.L. et al. (2021) *Renta Mínima y Democracia sustantiva de los ‘derechos de pobreza’ a los de ‘ciudadanía social’* Jaen: Editorial Universidad de Jaén. 22. orr.

⁵⁷ LOPEZ INSUA B.M *Rentas mínimas de inserción: aspectos críticos respecto al ámbito subjetivo y límites del derecho* 1298. orr.

Eskumenaren egikaritze zilegia burutu ahal izateko, Autonomi Estatutuaren bitartez bereganatu behar da gaitasun araugilea. Hori horrela, EA Eren Estatutuaren 10. artikulua 12. zenbakian adierazten denez, EA Eren eskumen eskusiboa izango da gizarte laguntzarena.⁵⁸ Testuinguru honetan sortzen da 18/2008. urteko abenduaren 23ko legea, diru sarrerak bermatzeko errentaren sistema arautzen zuena, eta egun 14/2022. urteko legearen bitartez indargabetu dena.

Lege honen bitartez pobrezari aurre egiteko diru sarrerak bermatzeko errenta martxan jarri da. Prestazio honek bi irtenbide aurreikusten ditu langabeziaren ondorioz gizarte bazterketa pairatzen duten pertsonentzat. Alde batetik, diru sarrera baterako eskubidea aurreikusten da, laguntza pasibo moduan. Bestalde, lanaren bitartez gizartean barneratu ahal izateko plan aktibo bat sortzea planteatzen da. Testuinguru honetan, gizarte bazterketa sufritzen duen pertsonari berme bikoitza duen eskubide baten aitortpena aurreikusten zaio, beti ere legean ezarritako baldintzak betetzen direnean eta jasotzaile izatekotan kontraprestazio moduan aurrera eraman behar izango diren betebeharrak burutzen direnean⁵⁹.

4. ESKUBIDEAREN ONURADUNA

Diru sarrerak bermatzeko errentaren ondorioz administrazioaren eskutik laguntza jasoko duten pertsona multzoa bi taldetan banatu beharra dago. Izan ere, prestazioaren titularrak egongo dira alde batetik, eta bestaldetik prestazioaren onuradunak. Izan ere, prestazio bakar baten aintzatespenak pertsona bat baino gehiagoren gainean izan dezake eragina, honen efektuetarako eskatzailea (prestazioaren titularra) norekin bizi den kontuan hartuko delarik.

5.1. Indibidualtasuna eta bizikidetzaren unitatearen trataera

Diru sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren onuraduna indibiduala izan badaiteke ere, multzo kolektibo batera dago zuzenduta gehien bat, pertsona talde honi bizikidetzaren unitatea deritza. Hori horrela 14/2022. urteko legearen 8. artikulua argi adierazten du nola prestazio

⁵⁸ Zentzu horretan 14/2022. urteko legearen III. zioen azalpenean adierazten dena.

⁵⁹ MONEREO PÉREZ J.L. (2021) *El derecho social al ingreso mínimo vital* Universidad de Granada: temas laborales núm.158/2021. 55. orrialdea.

honen aintzatespena emanda bi multzotan banatzen den honen gozamina: eskubidearen titularrak eta onuradunak, aurretik azaldu bezala.

Prestazioa jasotzerakoan, titular bakarra egon arren, prestazioaren helburua kolektiboa izango da, onuradunak atxikitzen direlako gehienetan. Izan ere, administrazioak eskaera onartzerakoan eskatzailearen beharrian egoera ez du modu isolatuan aztertuko. Egun, EAEn (baita estatu mailan bizirauteko gutxieneko errenta jasotzerakoan) indarrean dagoen diru sarrerak bermatzeko errenta gozatu ahal izateko, administrazioak pertsona baten pobrezia maila bi irizpideren arabera neurtuko du: eskatzaileak indibidualki dauzkan baliabideak eta bere bizikidetzaren unitateak dauzkan errekurtsio ekonomikoak. Prestazio bakar baten aitortzea gauzatu ahal izateko beraz ezaugarri pertsonal eta kolektiboak kontuan hartuko dira.

Bizikidetzaren unitatea interpretatu ahal izateko gorago aipatutako legearen 25. artikulura jo behar da. Pertsona multzo hau nork osatuko duen zehaztu ahal izateko oinarria prestazioa jasotzen duen titularraren etxea, bizilekua izango delarik. Azpimarratu beharra dago pertsona bera, gehienez, bizikidetzaren unitate bakar baten kide izan daitekeela. Hau behin ezarrita bizikidetzaren unitatearen sailkapena bi irizpideren arabera egingo da: senidetasuna eta onarpen hutsa.

Lehenengo irizpideak efektu juridikoetarako familia harreman bat egotea eskatzen du. Horrela, bizikidetzaren unitatea osatuko dute etxe berdinean ezkontzaren edo antzeko harreman baten ondorioz lotuta dauden pertsonak, bigarren gradurainoko senideak odolkidetasun edo adopzioa dela eta familia-harrera egoerak iraunkorrek edo adopzio aurrekoak diren kontuan hartu gabe.

Bigarren irizpideak, aldiz, ez du inolako lotura juridikorik eskatzen etxe berdinean bizi diren pertsonen artean bizikidetzaren unitate kontzeptua aplikatu ahal izateko. Izan ere, irizpide baztertzailerik moduan aurkezten den aukera da, familia loturarik ez dagoenean bakarrik izango delarik aplikagarri. Beraz, familia loturarik ez dagoenean eta eskatzailearen bizilekuan pertsona gehiago bizi direnean eskatzaileak bi aukera ditu. Lehenengoa, pertsona bakarrek bizikidetzaren unitatea sortzea litzateke, nahiz eta etxebizitza horretan pertsona gehiago bizi kopurua ez litzateke kontuan hartuko prestazioaren kantitatea kalkulatzeko, laguntza pertsona bakarrera zuzenduta egongo litzateke kasu honetan. Baina, aukera hau baztertu ahal izango litzateke eskatzailearen etxean bizi diren gainerako pertsonen onarpena jasoko balitz,

bizikidetza unitatea sortzeko nahia adieraziz. Horrenbestez, diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskaera administrazioari aurkezterako unean, ezinbestekoa izango litzateke eskatzailearen etxean bizi diren pertsona guztien onarpen idatzia jasotzea etxebizitzan dagoen pertsona multzoa prestazioaren efektuetarako bizikidetza unitate bakartzat hartu ahal izateko. Legeak akordio horren esanbidezko adierazpena aurreikusten duen arren jurisprudentziak bizikidetza unitatearen interpretazio zabala nola aplikatzen duen kontuan hartu beharko da. Adibidez, logela berdina partekatzeak, nahiz eta titularrak adierazi familia harremanik ez dagoela, zuzenean bizikidetza unitatearen sorrera suposatuko duela adierazi da⁶⁰. Izan ere, legearen efektuetarako ‘bizikidetza unitatearen’ kontzeptuak ez du harreman sentimental edo bizitza proiektu amankomun baten kalifikazioa burutzeko balio izango. Ordea, bizikidetza unitatearen bitartez etxebizitza berdinean bizi diren pertsonen artean proiektu amankomun bat dagoela egiaztatzen mugatuko da. ‘Proiektu amankomunaren’ terminoa zabalegia izan daiteke, batzuetan bizikidetza unitatea dagoela zuzenean interpretatu baita etxebizitzaren gastuei aurre egiteko etxebizitzako kideen artean ematen den gastuen konpentsazioa.

Bizikidetza unitatea izango da prestazioaren nondik norakoak definituko dituen, honen gaitasun ekonomikoa izango baita beti ardatza. Hala ere, gogorarazi beharra dago bizikidetza unitatea eta etxebizitza kontzeptuak ez direla gauza berdina. Izan ere, etxebizitza batean bizikidetza unitate bat baino gehiago egon daitezke, ez baita ezartzen etxebizitza bakoitzeko bizikidetza unitate gehienezko kopurua zein den.

Marko orokorra azaldu arren, legeak bizikidetza unitateari trataera berezi bat eskaini diezaioke kasu zehatz batzuetan⁶¹. Izan ere, prestazioaren titularra den familiako kide batekin bizi arren, bizikidetza unitate independente bat sortu dezakete egoera zaurgarri zehatzean dauden pertsonak. Horrela, legeak babes gehigarria behar duten pertsonen zerrenda *numerus clausus* ezartzen du (erregelamendu bitartez egoera gehiago aurreikusteko aukera zabalduz). Hona hemen adierazitako egoerak: giza salerosketaren, sexu-esplotazioaren, genero indarkeriaren edota etxeko indarkeriaren biktima izatea. Banaketa edo dibortzio prozesuan murgilduta egotea, pentsionista izatea. Azkenik, zaintza lana dela eta: seme alabak izateagatik, adingabeko den pertsona bati babes emateagatik, edo %33ko ezgaitasuna duen pertsona bat zaintzeagatik.

⁶⁰ Zentzu horretan EAeko JANko 2502/2022. urteko epaia.

⁶¹ Zentzu horretan EAeko 14/2022. urteko abenduaren 22ko 26. artikulua.

Aipatutako ezaugarriak bizi dituzten pertsonak, prestazioaren jasotzeko baldintza orokorrak betetzen dituzten bitartean, titular izan daitezke modu independente batean. Hala ere, babes honi 3 urteko tartea eskaintzen zaio bakarrik⁶².

Berebiziko garrantzia dauka tarte hau noiz hasi behar den zenbatzen zehaztea. Izan ere, kausa eman bezain pronto, eskatu beharra dago bizikidetza unitate independentea sortzeko aukera, behin egoera sortu eta 3 urteko epea igaro bada ezin izango baita salbuespen honen aplikaziorik egin. Honen adibide moduan seme alabak dituzten eta zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen kasua litzateke. Kasu konkretu baten azterketa egoera ulertzeko: emakume batek bere amarekin bizikidetza unitatea sortzen zuen, 2014. urtean alaba bat izan zuelarik. Horrela, 2017. urtean emakumeak bizikidetza unitate independentea sortzeko eskaera luzatu zuen, baina gertaera eragilea (alaba jaiotzea) eta eskaera tarteratze epeak ez zuten bat egiten eta ondorioz ezin izan zitzaion babes gehigarriaren aukera eskaini⁶³.

5.2 Bete beharreko baldintzak

Arestian aipatu moduan, diru sarrerak bermatzeko errentaren onuraduna eta titularra izateko, hainbat baldintza bete behar dira, eskubide subjektibo baten aurrean gauden heinean⁶⁴. Legean zerrendatzen diren betekizunak betetzen badira, eskubidearen titular eta onuraduna bilakatu daiteke pertsona.

Hori horrela, 14/2022. urteko legearen 16. artikulua titularra izateko baldintzak zerrendatzen dituelarik. Baldintzak bi multzo nagusitan banatu daitezke. Hasteko, prestazioa eskatu ahal izateko aurreikusten direnak genituzke. Hala nola, EAEn bizilekua izatea, bizikidetza unitate baten parte izatea edo prestazioa eskatzeko beharizan egoeran egon behar izatea besteak beste. Behin Lanbideren bitartez, nahitaezkoak diren ezaugarri hauek betetzen direla egiaztatuta prestazioa eskaini ahal izango delarik.

⁶² Zentzu horretan EAeko 14/2022. urteko legearen 26.3. artikulua.

⁶³ EAeko JANko 202/2019. urteko epaia. MORENO MÁRQUEZ A. (2018) *‘Requisitos comunes para el acceso a las prestaciones autonómicas de garantía de ingresos’* Madrid: Temas Laborales 143/2018. 112. orrialdearen arabera: Bizikidetza unitate independente bat osatu ahal izateko legean aurreikusitako egoerak ez dira zuzenean apikagarriak, egoera berdinen aurrean eskaera luzatzeko epearen garrantzia nabarmentzen da, elementu erabakigarria izanik.

⁶⁴ Zentzu horretan 14/2022. urteko legearen 10.1. artikulua

Hala ere, baldintza hauek ez dira nahikoak izango. Lege bitartez ezinbestekoa izango da, prestazioa jaso eta urtebeteko epean⁶⁵, administrazioarekin langabeziari aurre egiteko plan bat hitzartzea, nahitaezko betearazpena izango duelarik bai botere publikoentzat baita eskubidearen titularrarentzat ere. Honen arrazoia, agerikoa den eskasia ekonomikoari aurre egiteaz aparte, lan munduan barneratu ahal izateko neurria izango da.⁶⁶

5.2.1 Errolda eta bizilekua

14/2022. urteko legearen 16. artikuluan diru sarrerak bermatzeko errentaren titularrak izateko ezaugarri orokorrak zerrendatzen dira. Xedapen honen e letrak aurrebaldintza bat ezartzen duelarik bizilekuari dagokionez. Izan ere, ezinbestekoa izango da prestazioa jasotzeko eskaera aurkezteko unea baino lehenago gutxieneko urte kopuru zehatz bat (egoeraren arabera⁶⁷) EAEko edozein udalerritan erroldatua egotea modu jarraituan⁶⁸. Bi ezaugarri dira hemen deigarri: nahitaezko baldintza moduan errolda eta gainera, errolda hori modu jarraitu batean egiaztatu behar izatea. Erroldatua egoteko ezinbesteko baldintzak hauek dira⁶⁹: nortasuna egiaztatzen duen dokumentazioa, eta bizileku efektiboa aurrera eramaten etxebizitzarekin lotura adierazten duen dokumentua. Gainera, azpimarratu beharra dago behin errolda sartzeko eskaera egiten denean administrazioak eskaera horri espreski erantzuna ematen ez badio hiru hilabeteko epean, isiltasun administratibo hori interesatuaren aldeko eskaeraren onarpen moduan interpretatu behar izango dela. Alegia, isiltasun positiboaren efektuak aplikatuz⁷⁰.

Errolda prestazioa jasotzeko ezinbesteko baldintza moduan aurkezten den arren, EAEko JANren esanetan hau ez da lurraldean finkatze edo sustraitze froga adieraziko duen elementua. Izan ere, horretarako ezinbestekoa izango da bestelako ezaugarriak betetzea, hala nola: pertsonekin harreman loturak egiaztatzea baita harreman ekonomikoetan eta

⁶⁵ Zentzu horretan 14/2022. urteko legearen 116.1. artikulua

⁶⁶ MONEREO PÉREZ J.L (2021) *El derecho social al ingreso mínimo vital* Universidad de Granada: temas laborales núm.158/2021. 48. orrialdea

⁶⁷ Zentzu horretan 14/2022. urteko legearen 16.1.e letran agertzen diren mi denbora tarteak kontuan hartuko dira:

1. Eskaera tarteratu baino lehen modu jarraituan 3 urtez EAEn bizi izatea
2. Aurreko baldintza bete ezean, eskaera tarteratu aurreko 10 urteko tartean 5 urtez EAEn bizi izatea modu jarraituan.

⁶⁸ MORENO MÁRQUEZ A. (2018) *Requisitos comunes para el acceso a las prestaciones autonómicas de garantía de ingresos* Madrid: Temas Laborales 143/2018. 91. orrialdea.

⁶⁹ Zentzu horretan 7/1985 apirilaren 2ko legearen 16.2. artikulua.

⁷⁰ Zentzu horretan 39/2015. urteko urriaren 1eko legearen 24.1. artikulua. CERESO MARISCAL J.M (2016) *Praxis de la Inmigración Irregular en España del siglo XXI* UNED: Escuela de Doctorado. 154. orrialdea.

lurraldearekin kontaktu zuzena izatea ere⁷¹. Baldintza hau eskatzaile guztientzat galdagarria den arren, ukaezina da atzerritar askorentzat arazo gehigarri moduan inposatzen zaiela laguntza jasotzerako unean. Izan ere, oztopo ugari gainditu behar dituzte agiri hau lortu ahal izateko, hala nola: etxe baten alokairua lortu ahal izateko jabeek askotan baldintza moduan bertan ez erroldatzea ezartzen dutelako edo udalerraren administrazioek ez dutelako erraztasunik ematen⁷². Atzerritar askoren egoera erroldari dagokionez oso latza da: etxebizitza batean bizi arren beste batean daudelako erroldatuta. Batzuetan udalerrri edo AAEE berdinean, hala ere askotan AAEE zehatz batean bizi eta beste batean erroldatzen dira. Erroldatzea ezinezkoa egiten duten egoera batzuk aipatu behar dira. Hasteko, higiezin agentzia eta maizterrek ezarritako gehiegizko neurriak, hala nola: izaera oso motza duten kontratuak, bizitza egonkorra egiaztatzeko balio ez dutenak. Etxebizitzaren prezioen ondorioz ematen diren azpierrendamenduak edo enplegu emailearen etxebizitzan bizi diren pertsonen egoerak errolda lortzea oztopatzen dute⁷³. Azkenik, ezin da ahaztu gaur egun etxebizitzarik gabeko pertsonak daudela, errolda lortzeko agerikoa den ezaugarri baten faltara eramaten duelarik. Ondorioz, eskakizun burokratiko honek eskubide eta gizarte laguntzetara⁷⁴ iritsi ahal izateko muga gaindiezin moduan funtzionatzen du pertsona hauentzat.

Behin aurretiazko baldintza hori beteta, prestazioa jasotzen duten pertsonen EAeko lurraldean mantendu behar izango dute 'egiazkoa' edo 'efektiboa' den bizilekua. Egoera hau mantentzeak legearen efektuetarako honako esanahia dauka, 16.3. artikuluan zehazten den moduan: urtebete naturala erreferentzia moduan hartuta, ezin izango dute EAeren lurraldetik kanpo egon 90 egun baino gehiago.

Azpimarratu beharra dago administrazioarentzat benetako bizilekuaren egoera *iuris tantum* presuntzio moduan ulertzen dela⁷⁵. Horrenbestez, nahiz eta erroldaren bitartez eskatzailea EAeko lurraldean bizi dela egiaztatu, kontrako frogak onartzen dira eta uste hori apurtu daiteke modu egokian frogatzen bada. Honako frogak erabili izan dira administrazioaren aldetik hau egiaztatu ahal izateko: AAEEtik kanpo egiten den bidai kopurua, etxebizitza

⁷¹ Zentzu horretan JANren 528/2015. urteko irailaren 23ko epaia.

⁷² ARNOSO M. MAZKIARAN M et al (2011) 'Acceso de la población inmigrante en la Comunidad Autónoma Vasca a los servicios y prestaciones' Vitoria-Gasteiz: Ararteko 107-108.orrialdeak

⁷³ ZARAUZ J. (2007) 'Incidencia del padrón municipal en el ejercicio de los derechos de las personas extranjeras en situación irregular' Vitoria-Gasteiz: Ararteko. 240-248. orrialdeak

⁷⁴ Zentzu horretan 4/2000. urteko urtarrilaren 1ko LOren 14.3. artikulua araberak: Atzerritarrek, haien egoera administratiboa zein den kontuan izan gabe, oinarritzkoak diren gizarte zerbitzu eta laguntzak jasotzeko eskubidea izango dutela adierazten da.

⁷⁵ EAeko Justizia Auzitegi Nagusiko epaia: 2206/2022, 4. OJ

gastuak zeintzuk diren, ohiko erosketak edo banku gastuak non burutzen eta abar. Hala ere, azpimarratu beharra dago bide hauek intimitatearen oinarrizko eskubidea urratu dezaketela, izan ere proportzionalitate printzipioaren arabera jardun behar dute administrazioek eta neurri hauek gehiegizkoak izan daitezke. Horrenbestez, pertsona baten bizileku eraginkorra bide leunagoak erabiliz egiaztatu daiteke, oinarrizko eskubideen mugaketara jo ordez.

Berebiziko garrantzia dauka jarraitua den bizilekua mantentzea, hau ez denean betetzen administrazioak prestazioa bertan behera uzteko edo behin betiko kentzeko argudio bezala erabili izan duelako. 14/2022. urteko legearen 43 eta 48. artikuluek hurrenez hurren adierazten duten bezala. Adibide moduan 2022. urteko urriaren 20ko Arartekok kaleratutako ebazpena dago. Honen arabera, 2020. urteko otsailaren 7an prestazioaren eskatzaileak bere jaioterrira bidaiatu zuen oporrak pasatzeko asmoz, apirilean bueltatzeko intentzioarekin hain zuzen ere. Pandemia dela medio, estatu eta nazioarte mailan mugitzeko askatasuna murriztu zen eta ondorioz martxotik aurrera nazioarteko bidaiak geldialdi nabaria pairatu behar izan zuten. Hori horrela, diru sarrerak bermatzeko errentaren eskaera aurkeztu zuen gizonak ezin izan zen EAEn erroldatua zegoen udalerrira bueltatu. Bost hilabete igaro behar izan zituen etxetik kanpo, aurreikusi ezina zen egoera baten ondorioz. Hala ere, administrazioak zentzu hertsian ulertzen du legean aurreikusitako hiru hilabeteen muga. Ez du inolako malgutasunik eskaintzen nahiz eta eskatzaile edo onuradunaren eskutik kanpo egon EAEn lurraldetik kanpo denbora gehiago igaro behar izateak. Hortaz, erabat independenteak dira prestazioaren onuradun edo titular izaterako orduan kanpoan igaro behar izateko arrazoiak, legeak ezartzen den mugarekiko. Ez baita egoera partikularren inolako interpretaziorik egongo.⁷⁶

5.2.2. Beharrian egoeraren interpretazioa

Hasieratik ezarri beharra dago beharrian egoerak ez diola erantzuna ematen banako bakoitzak dituen nahi indibidualei. Izan ere, erabat subjektiboa eta pertsonala den kontzeptu bat sortuko luke bakoitzarentzat, hau ase egin ahal izateko irtenbide juridikoak sortzea ezinezkoa izango litzatekeelarik. Norbanakoaren desio edo lehentasun pertsonalak ezin dira

⁷⁶ Resolución 2022S-1326-21 del Ararteko, de 20 de octubre de 2022, que sugiere al Departamento de Trabajo y Empleo que revise la denegación de la solicitud de renta de garantía de ingresos y prestación complementaria de vivienda a un ciudadano por estimar que ha acreditado el cumplimiento del requisito de padrón y residencia efectiva ininterrumpida durante los tres años anteriores, aun habiendo permanecido en su país de origen durante 5 meses como consecuencia de la pandemia por la Covid-19.

izan beharrian egoera baten aintzatespena gauzatzeko kontuan hartutako datuak. Izan ere, desioa erabat aldakorra den kontzeptua izanda ezin da finkotasun batekin tratatu.

Idea hau alde batera utzita beharrian ikuspuntu objektibo batetik interpretatu behar izango da. Orokortasun batekin egoera honen nondik norakoak finkatu ahal izateko. Ezaugarri amankomunak ezarriz beharrian egoera neurgarria eta egiaztagarria izan beharko da. Hori horrela, bi elementu ezinbestekoak izango dira hau neurtu ahal izateko. Alde batetik, banako bakoitzak dituen baliabide falta hartuko da kontuan, hala nola: elikatzeko, janzteko edo hesitzeko dagoen baliabide eskasia. Behin hau neurtuta duintasunez bizi ahal izateko erreferentzia minimo bat ezarriko da muga bezala, hau gainditzen ez duten egoera guztiek beharrianaren isla izango direlarik.

Hortaz, beharrian egoera baten aurrean gauden identifikatu ahal izateko hurrengo ezaugarriak hartuko dira kontuan. Hasteko, oinarrikoak dira: duintasunez bizi ahal izateko nahitaezkoak diren behar materialen aurrean egongo gara. Bizi ahal izateko gizakiak beharrezkoak izango dituen gutxieneko elementuak: janaria, arropa, gizarte laguntzak eta abar. *Conditio sine qua non* elementuak dira, hauen faltan ezinezkoa izango baita bizitza duin baten garapena.

Bigarrenik, objektiboak izango dira. Norbanakoak bere kabuz ezin baitu erabaki hauek erabiltzeari uztea, hori horrela norbanakoaren erabaki eremutik kanpo dauden kanpo faktoreek eragingo dute beti elementu hauen falta.

Orokortu daitezkeen beharrianak izango dira beti. Ez bakarrik estatu baten herritarrei baizik eta gizakiei espezie moduan. Azkenik, historikoak dira, norbanakoaren beharrak aldatuko dira bizi duen garaiaren arabera, horrela beharrian egoera dagoela erabakiko duten elementuak denboran zehar aldatzen direla baieztatzen da, une historikoak eta momentuko gizarte beharrek ezarriko dituztelarik.⁷⁷

Beharrian aspektu askotan eman daiteke. Baliabide faltak egoera ekonomiko larri bat sortzen duenean 14/2022. urteko legea izango da aplikagarri. Titularra izateko baldintzekin jarraituz, 16. artikulua f letran beharrian egoeran egotea ezinbestekoa izango dela

⁷⁷ MARTINEZ PISÓN J (2009)., *Los derechos sociales como una exigencia a la justicia*. Universidad de Alcalá 94-96 orrialdeak.

ezartzen da. Honen interpretazioa 37. artikulua ezartzen dituen irizpideen arabera gauzatuko delarik.

Kasu honetan berriro ere, ezaugarria indibidual moduan titular izateko den arren, honen betetzea ziurtatzeko ez da eskatzailearen egoera kontuan hartuko bakarrik, baizik eta bere bizikidetzaren unitatearena. Aurretik azaldu bezala, erreferentzia minimo bat ezartzen da: bermatutako gehienezko errenta. Horrenbestez, eskatzaileak eta bere bizikidetzaren unitateak hau gainditzen duten baliabide ekonomikoak dituzten neurtuko da bi bide bitartez.⁷⁸ Lehenengoa: bizikidetzaren unitatearen hilabeteko diru sarrerak bermatutako gehienezko errenta gainditzen ez dutenean. Bizikidetzaren unitatearen diru sarrerak zentzu zabal batean interpretatu behar izango dira, honen barruan prestazioaren zenbatekoa kalkulatzekoan kide bakoitzak jasotako: prestazio, lan etekin, laguntza, eta ondarearen etekinak kontuan hartuko dira. Bigarrena: bizikidetzaren unitateari urtebetez legokiokeen gehieneko errenta bermatuaren zenbatekoaren halako bost edo gehiago. Beraz, muga honen azpitik kokatzen diren egoera ekonomiko guztiak beharrezan daudela ulertuko da.

5.2.3 Baldintzen eraginkortasunaren inguruko hausnarketa

Arestian adierazi bezala pobrezia aurre egiteko neurria eskubide subjektibo moduan aurkeztea ezinbesteko baldintzak egotea eskatzen du. Hala ere, aztertu den bezala eskakizun guztiak pobrezia egoera pairatzen duen subjektuen betebeharrak moduan azaltzen dira. Gogorarazi beharra dago legeak aurreikusten duen gizarte bazterketa eta pobrezia egoera modu zuzenean lan faltarekin lotzen duela. Horrenbestez, baldintza zaurgarrian dagoen pertsonaren gainean hainbesteko betekizun ezartzeak egoera horretatik ateratzea ahal izateko konponbidea indibiduala dela interpretatzera eramanez.

Prestazioa eskatu ahal izateko adin muga bat ezartzen du legeak, 18 urtekoa hain zuzen ere. Zentzu honetan ezinezkoa dirudi adin honen azpitik kokatzen diren gazteak beharrezan ekonomiko baten egoeran egotea, bizitza duin bat eta gizarteratzea bultzatu nahi bada, ez dauka eraginkortasun handirik adinaren arazoia dela eta zuzenean gizartearen zati bat eskubide hau jasotzetik kanpo kokatzea⁷⁹.

⁷⁸ Zentzu honetan 14/2022. urteko legearen 37. artikulua a) eta b) letrak.

⁷⁹ MONEREO PÉREZ J.L (2021) *El derecho social al ingreso mínimo vital* Universidad de Granada: temas laborales núm.158/2021. 48. orrialdea.

Argi dago, oraindik zuzenbide eta familia kontzeptua oso lotuta daudela honen inguruan eraiki baita prestazio hau. Hala ere, norbanakoaren oinarrikoak diren eskubideak askatasunez egikaritu eta gozatu ahal izateko ezinbestekoa izango litzateke duintasunez bizitzea ere askatasun ekonomiko batekin ahalbidetzea. Nahiz eta lege honen bitartez, aurretik azaldu den moduan ez da zuzenean familiari zuzendutako prestazio moduan aurkezten bizikidetzaren unitateak eskubidearen kolektibizazioa agerian uzten du. Honek zuzenean zalantzan jartzen du norbanakoak duintasunez bizitzeko duen eskubidea.⁸⁰

Eskubide subjektiboa izateaz aparte, baldintzatua den eskubide baten aurrean gaude. Izan ere, onuraduna hitzarmen bat sinatzera behartuta egongo da, kontraprestazio moduan ulertu daitekeelarik, hau ez betetzea diru laguntza jasotzeri uztea suposatu daiteke. Hala ere, zalantzan jartzen da honen eraginkortasuna, izan ere gizarteratzeko plana baliagarria izan badaiteke ere honen ez betetzeak ezin du zuzenean honen gozamina ezabatu. Hortaz, askoz interesgarriago izango litzateke langabeziari aurre egiteko ekimen publikoa administrazioaren aldetik presentzia handiagoa izatea, horrela gizarteratzeko eskubidearen garantia erreala emango litzatekeelako, lanpostuen aktibazio subjektiboa burutu baino.

Kontraprestazioak ez du ezartzen ezinbesteko baldintza moduan lanpostu bat aurkitzea, izan ere administrazioak ez du hori bermatzeko gaitasun errealik. Baina zentzu positibo batean ulertzen dira lana lortzeko ahaleginak administrazioarekin sinatutako akordioa jarraitzen den bitartean. Honen betearazpenak zentzu positibo batean baloratuko baita.

Gainera, argi dago prestazioaren izaera denboran mugagabea⁸¹ izango den arren, helburu nagusia pertsona langabetuak prestazioa ez den beste iturri batetik diru sarrerak eskuratzea izango dela⁸². Horrenbestez, beti dago arriskua langabezian berriro geratzeko, hau ez baita egoera ziurra⁸³ eta hortaz prestazioaren bitartez aurreikusten den ‘duintasunez bizitzeko’ aukera hau beti izango da denboran mugatua eta *ex post*, beharizan egoera pairatu eta gero,

⁸⁰ MONEREO PÉREZ J.L. (2021) *El derecho social al ingreso mínimo vital* Universidad de Granada: temas laborales núm.158/2021. 49. orrialdea.

⁸¹Zentzu horretan EAEko 14/2022. urteko abenduaren 22ko legearen 15. artikuluko c letra. FORNS FERNANDEZ M.V. (2020) ‘*La garantía de una renta básica de ciudadanía como instrumento del Estado del Bienestar en transformación*’ Tarragona: Revista de Investigación Constitucional. 11-58. 37. orrialdea.

⁸² DE LA RICA S. GORJÓN L. (2018) ‘*El impacto de la Renta de Garantía de Ingresos en Euskadi*’ Papeles de la Economía Española Nº156. 113. orrialdea.

⁸³ DE LA CAL M.L. (2014) *La garantía de rentas mínimas en el estado Español. Especial Referencia a la RGI Vasca*’ Huelva: Universidad de Huelva. 105. orrialdea.

jasoko den laguntza. Duintasunez bizi ahal izateko elementu zentral moduan lanpostua lortzea delako legeak bultzatzen duena.

Laburbilduz, prestazio hau eskatzerako orduan, egiaztatu beharreko ezaugarri eta baldintzak asko dira, batzuetan bere eraginkortasuna pobrezia murrizteko oso zalantzarriak izanik. Horrenbestez, administrazioaren aldetik laguntza eskatzen duten pertsonen gainean betearazpen eta baldintza etengabeak eskatu beharrean, akzio publiko bat bultzatu beharko litzateke⁸⁴. Honi esker pobrezia egoera kriminalizatzea eta egoera horretan egotearen justifikazio etengabea burutzea murriztu ahal izango litzateke. Administrazioak norbanakoaren duintasuna helburu moduan izanda ez luke honen gainean utzi beharko duintasun honetara iritsi ahal izateko ardura eta erantzunkizuna⁸⁵. Zuzenbide estatuaren ardura izan behar da gizabanakoaren garapen pertsonal egokia lortu ahal izateko mekanismoak martxan jartzea⁸⁶.

5. EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAN 14/2022. URTEKO LEGEAK EKARRITAKO ALDAKETAK

1989. urtean EAEn pobrezia aurre egiteko plana martxan jarri zen. Horrela 2/1990. urteko maiatzaren 2an gizarteratzeko gutxieneko diru sarrera ezarri zen. Helburu nagusia AAEEgo mailan beharizan egoeran zeuden pertsonen diru laguntza bat eskaintzea zen, egoera zaurgarrian zeuden pertsonen gizarteratzea bermatu ahal izateko.⁸⁷

Lege hau oinarri hartuta, hainbat erreforma eta lege aldaketa burutu izan dira, pobrezia aurre egiteko prestazio ekonomikoa beti izan delarik ardatza. Politika aldaketa hauek prestazioa mantendu izan duten arren, hau jasotzeko baldintza eta eskakizunetan hainbat aldaketa ezarri izan dira urteetan zehar. Hasierako legeak ezarritako helburua modu eraginkorrago batean lortu ahal izateko ekimena zalantzan jartzen dutelarik hainbat aldaketek.

⁸⁴ MALGESINI, G. (2014): Informe sobre los sistemas de rentas mínimas en España, European Minimum Income Network. Comisión Europea. 51. orrialdearen arabera: enpleguaren derrigorrezko bilaketa ezarri ordez, enpleguaren sustapen publikoaren aktibazioa bultzatu beharko litzateke.

⁸⁵ RODRIGUEZ MARTIN, A. et al (2017). *Prácticas Innovadoras inclusivas: retos y oportunidades*. Oviedo: Universidad de Oviedo. 2392. orrialdea.

⁸⁶ MONEREO PÉREZ J.L (2021) *El derecho social al ingreso mínimo vital* Universidad de Granada: temas laborales núm.158/2021. 113. orrialdea.

⁸⁷ 2/1990. urteko maiatzaren 3ko legearen 1. artikulua.

18/2008. urteko abenduaren 23ko legearen bitartez gizarteratzeko prestazioa jaso ahal izateko baldintzetan eskakizun zorrotzak ezarri ziren. Alde batetik, etxebizitza batean prestazioa jaso ahal izateko titular kopurua murriztu zen lehenengo aldiz. Izan ere, gehienez bi pertsona izan daitezke titular etxe berean⁸⁸. Gaur egun indarrean dagoen legeak bertan behera utzi du neurri hau, ez delarik ezartzen etxebizitza baten barruan dirua bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko gehienezko kopurua.⁸⁹ Bestalde, prestazioa kobratzerakoan, kontrol gehiago ezarri zen, urtero administrazioaren aldetik bi ikuskaritza ezarriz. Azkenik, lanpostua kontraprestazio moduan ezarri zen, onuradun eta titularrak lan munduan barneratzeko ekimena ezinbesteko baldintza moduan ezarriz.

Prestazioaren iraupenari dagokionez, legearen azken erreformak aldaketa nabariak ekarri ditu. 18/2008. urteko abenduaren 23ko legearen 23. artikuluan prestazioaren iraupena ezartzen zen. Honen arabera, bi urteko epea finkatzen du. Eskubidearen titularrek hau kobratzen jarraitu ahal izateko, ezarritako epea igaro baino hiru hilabete lehenago administrazioari eskaera luzatu behar ziotelarik.

Aldiz, 14/2022. urteko abenduaren 22ko legeak aurretiaz ezarrita zegoen periodikotasuna bertan behera utzi du, bi urteko tartea ezabatuz.⁹⁰ Horrela, prestazioa kobratzeari uzteko ez da epe zehatzik ezartzen eta titularrek ez dute honen berritzea eskatu beharko. Printzipioz titularrei karga bat ezabatzen dien aldaketa moduan ulertu daiteke. Hala ere, honek administrazioaren aldetik ofizioz burutzen den kontrola handitu egiten du. Izan ere, hiru hilabetero prestazioaren onuradun eta titularren egoera egiaztatu ahal izango da bi aspektu nagusitan: prestazioa jaso ahal izateko baldintzak betetzen diren egiaztatze eta kasuan kasu hitzartutako baldintzak modu zuzenean betetzen diren bermatzeko.

6. PRESTAZIOAREN GAINEKO ADMINISTRAZIOAREN KONTROLA

Administrazio publikoak, dirua bermatzeko errentaren prestazioaren bitartez gizartearen eta ekonomiaren eremuan bere garrantzia nabarmendu du. Esku hartze hauek herritarren bizitza kalitatea hobetzea suposatuko dute, diru laguntzen bitartez gutxienekoa den duintasun batera

⁸⁸ EÍAS ORTEGA A. (2021). «Buena oportunidad para aprobar ahora una Renta Básica Incondicional en la Comunidad Autónoma Vasca»; Lan Harremanak. 89. orrialdea.

⁸⁹ Zentzu horretan 14/2022. urteko legearen III. zioen azalpeneko 6. atalen adierazten den moduan.

⁹⁰ 14/2022. urteko abenduaren 22ko legearen zioen azalpenean periodikotasuna bertan behera uzteko nahia adierazten da.

iritsi ahal izateko kasu honetan. Baina, aldi berean, ekonomian eta bereziki norbanakoaren bizitza pribatuan ematen diren gorabeheren inguruko kontrola areagotzen da.

6.1 Kontrol instrumentala

Printzipioz administrazioak burutzen duen kontrolaren justifikazioa helburu orokor baten aterpean eramaten da aurrera: askatasunerako eskubidea eta bizitza pribatuaren eremuak interes orokorrek harmonizatzea⁹¹. Kontrolaren testuinguruan zaintza eta ikuskaritzaren arteko ezberdintasuna zehaztu beharra dago. Zaintza zentzu orokor batean interpretatzen da, herritarren interes orokorra kolektiboki babestuz. Aldiz, ikuskaritzak eskuratzen du nagusitasuna prestazio honetan. Izan ere, jarduera formalizatu honen bitartez, indarrean dagoen legean ezarritako betebeharren baldintzak aurrera eramaten diren egiaztatuko da. Jarduera hauen izaera gehienbat prebentziozkoa izango delarik, burutuko den kontrola partikularra izanik, administrazioaren erabakiak subjektu zehatz baten gainean izango duelarik eragina⁹².

Ikuskaritza, administrazioak duen kontrol gaitasuna da. Honen erabilera zilegia izango delarik lege bitartez aurrera eramaten denean. Pertsona bati bermatutako eskubideak ekintza egokien bitartez aurrera eramaten direla ziurtatu ahal izateko. Beti ere, legean bertan aukera hori aurreikusi den kasuetan. Horrela, herritarrak legez kanpo burututako jardueraren kontra egiteko akzio publikoa litzateke⁹³. Ahalmen honen egikaritza, orokorra den interes baten izenean egingo da, EKn aitortutako oinarritzko eskubide eta askatasunak errespetatuz hain zuzen ere. Ikuskaritzaren helburua behin behineko arau-hausteen aurrean administrazioaren 'erantzuna' edo erreakzioa prestatzea izango da. Kaltea eman aurretik botere publikoak aurrera eramaten duen prebentzio orokor moduan erabilitako mekanismoa da, ikuskaritza ahalmena beti bestelako administrazio prozesuekiko instrumentala edo gehigarria izango delarik⁹⁴.

⁹¹ Zentzu horretan SÁNCHEZ MORÓN M. (2005) *Derecho administrativo: Parte General* Madrid: Editorial Tecnos. 622. orrialdea.

⁹² Zentzu horretan SÁNCHEZ MORÓN M. (2005) *Derecho administrativo: Parte General* Madrid: Editorial Tecnos. 636. orrialdea.

⁹³ REBOLLO PUIG M. (2013) La actividad inspectora. Actas del VIII Congreso de la Asociación Española de Profesores de Derecho Administrativo. 1. orrialdea.

⁹⁴ FERNÁNDEZ RAMOS S. (2002) *La actividad administrativa inspectora. El régimen jurídico general de la función inspectora*, Granada: Comares. 21-29. orrialdeak.

Lau ezaugarri nagusi ondoriozta daitezke ikuskaritza ahalmenetik⁹⁵. Esan bezala, gaitasun bat da: zentzu orokor eta abstraktu batean ulertu beharra dago, bere izaera instrumentala izango da, eta intere publikoa defendatzen dela ziurtatzeko balioko du. Honen bitartez, herritarren egoera juridiko ezberdinak eraldatu, onartu edo azkentzen direlarik.

Gainera, aldebakarreko ekimena nahikoa izango da hau burutu ahal izateko. Izan ere, administrazioak ofizioz jardungo du. Ez da ezinbestekoa hirugarren baten eskaera edota ikuskatua izango denaren borondatearen adierazpena administrazioak bere ahalmena martxan jarri ahal izateko.

Eskubideen muga suposatuko duen eginbide administratiboa izango da. Azpimarratu beharra dago ikuskaritzaren bitartez kaltetua izango den eskubidea EK_n aitortutako oinarrizko eskubide moduan ulertzen den kasuetan ezinbestekoa izango dela ikuskaritzaren nondik norakoan lege bitartez ezartzea. Hala ere, gogorarazi beharra dago administrazioaren ikuskaritza funtzioa ez dela ez betetze batean oinarrituta egon beharko, kontrol orokor bati ematen dio erantzuna. Horrenbestez, printzipioz kontrol hau burutzerakoan ez dira errespetatu beharko administrazio prozedura batean oinarrizkoak diren printzipioak⁹⁶, kontraesan edo defentsa eskubidea esate baterako.

Azkenik, irizpidez kotasunaren arabera aurrera eramango den kontrola dela esan beharra dago. Izan ere, administrazioak ez du gaitasunik osotasunean herritar guztien ekintzak ikuskatu ahal izateko. Horrenbestez, funtzioak burutzeko autonomia baliatuz bere ahalmena beharrezkoa ikusten duen kasu konkretuan aplikatu ahal izango du.

Diru sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren sisteman lege bitartez eskubidearen titular eta onuradunen gaineko kontrola burutzeko aukera aurreikusten da.⁹⁷ Gainera, prozesu hau oinarrituko duten printzipioak ere aipatzen dira: legezkotasuna, objektibitatea, eraginkortasuna, kongruentzia eta proportzionaltasuna⁹⁸. Kontrolaren helburua: prestazioa

⁹⁵ TIRADO BARRERA J.A. (2011) Reflexiones en Torno a La Potestad de Inspección o Fiscalización de La Administración Pública. 253-255. orrialdeak.

⁹⁶ FERNÁNDEZ RAMOS S. (2002) *La actividad administrativa de inspección el régimen jurídico general de la función inspectora* Madrid: Comares. 107. orrialdea.

⁹⁷ Zentzu horretan EAeko 14/2022. urteko abenduaren 22ko legearen IV. Titulua.

⁹⁸ Zentzu horretan EAeko 14/2022. urteko abenduaren 22ko legearen 90.1. artikulua. Orokorrean, 40/2015. urteko legearen 3. eta 4. artikuluan ezartzen diren printzipioak aipatzen dira, administrazioaren esku hartzeari dagokionez.

jasotzeko baldintzak betetzen diren ziurtatzea da.⁹⁹ Ofizioz, administrazioaren erabakiz, aurrera eramango den prozesu bat izango da. Administrazioaren aukera izango da beti kontrola burutzea, hala ere erabaki honetara iristeko iturriak ezberdinak izan daitezke, hala nola: salaketa bitartez, administrazio organoaren erabaki propioz edo goragoko kargu baten aginduz.

Zehazki, Lanbiden ikuskaritza hau burutuko duen pertsona taldea izendatu izan da, agintaritza agente moduan jardungo dutenak hain zuzen ere¹⁰⁰. Hauei, hainbat funtzio zehatz esleitu zaizkie lege bitartez. Hauen artean: prestazioaren titular eta onuradunen baldintza eta betebeharrak aurrera eramaten diren ikuskatzea, salaketak ikertzea, zehapen prozesuen eta kautelazko neurriak hartzeko proposamenak tarteratzea.

Funtzio hauek aurrera eraman ahal izateko, berriro lege bitartez Lanbideren ikuskaritza langileei hainbat gaitasun esleitu zaizkie¹⁰¹. Jardute marko oso zabala aurkezten da, izan ere mota guztietako egiaztapenak egitea eta edozein ikerketa-eginbide gauzatzeko ahalmena onartu zaio ikuskaritza organoari. Egiaztapenak gauzatzeko moduen artean, honako hauek zerrendatzen dira: onuradun eta titularren etxeetan sartzeko ahalmena, onuradun eta titularrei edozein informazio mota eskatu eta agintzeko aukera baita agerraldi betebeharra ezartzeko aukera ere.

6.2 Kontrol publikoaren ondorio negatiboak

Sarritan legeak aurreikusten dituen ahalmenen bitartez interes partikularra eta interes ‘orokorra’ gatazkan sartu dira. Izan ere, ikuskaritza ahalmenak hain dira zabalak batzuetan onuradun eta titularren oinarrizko eskubideak asko mugatzen direla. Prestazioaren eraginkortasunaren izenean burututako kontrol ekintzak prestazio jasotzaileen oinarrizko eskubideak mugatu dira. Ondorioz, hasiera batean ezarritako proportzionaltasun printzipioa modu zuzenean aplikatzen den zalantzan jarri daiteke egoera batzuetan.

⁹⁹ Zentzu horretan EAEko 14/2022. urteko abenduaren 22ko legearen 91. artikulua.

¹⁰⁰ Zentzu horretan EAEko 14/2022. urteko abenduaren 22ko legearen 93. artikulua.

¹⁰¹ Zentzu horretan EAEko 14/2022. urteko abenduaren 22ko legearen 94. artikulua.

Ikuskaritza burutzeko administrazioari ahalmena lege bitartez esleitzen zaionean, betebeharrak orokor moduan aurrera eramanez beharko den eginbidea dela baieztatzen da¹⁰². Hala ere, legeak aukera hau burutzeko zehaztasun handirik ez ditu eskaintzen: ez du ezartzen noiz, zenbatean behin edo noren gainean modu zehatzean aurrera eramanez daitezkeen funtzio hau. Irizpidekotan administratiboa izango da elementu hauen gainean erabakigarri, batzuetan gehiegizkoa den kontrola burutzen da erabatean arbitrarioak diren eginbideak aurrera eramanez.

6.2.1 Intimitate eskubidea

Intimitate eskubidea txiki pertsonala da. Eskubide honen bitartez, banako bakoitzari gizartetik kanpo bere eremu pertsonala izateko aukera bermatzen zaio. Eremu pribatua izatea ezinbestekoa izango da pertsona bakoitzaren garapena lortu ahal izateko, norbanakoaren erabakia izango delarik eremu horren barruan gertatutako gauzak eta datuak gainerako pertsonekin partekatzea edo ez¹⁰³. Herritarrak gizartean biziko dira, baina honek ez du inplizituki ekarriko gizarteak norbanakoaren eremu pribatuko datuak jakin behar izango dituenik.

Norbanakoak bere eremu pribatuko datuak partekatzeko aukera dauka. informazio horren kontrola izanik. Puntualki, datuak partekatu ditzake, hala ere honek ez du ekarriko bere intimitate eskubidea bertan behera uztea. Izan ere, datu zehatzen partekatzeak intimitate eskubidearen behin behineko uko egite moduan ulertu beharko da, uko egiteak partekatu diren datu horiei egiten diolarik erreferentzia modu eskusiboan. Beraz, modu orokorrean intimitate eskubideari uko egitea ez da posible.

Lanbideak lege bitartez bereganatu dituen ahalmenek intimitate eskubidearen eremuan zeresan dute bi aspektu nagusietan: etxebizitzatan sartzeko aitortzen zaien ahalmenean eta pertsona baten diru sarrerak kontrolatzeko joeran hain zuzen ere. Hauek, oinarritzko eskubideak izanda, ikuskaritza ahalmena burutzerako unean ezinbestekoa izango da aurretiaz aipatutako printzipioak oinarri moduan hartzea, aipamen berezia egin behar zaiolarik proportzionaltasun

¹⁰² FERNÁNDEZ RAMOS S. (2002) *La actividad administrativa de inspección el régimen jurídico general de la función inspectora* Madrid: Comares. 58. orrialdea.

¹⁰³ Zentzu horretan URÍAS J. (2009) *Lecciones de derecho de la información*. Madrid: Editorial Tecnos. 10. orrialdea. KAE 144/1999. urteko 8. OJ

printzipioari. Honen bitartez ulertu baitaiteke bakarrik oinarrizko eskubide baten legezko mugaketa.

Ezinbestekoa izango da, administrazioak bideratuko duen ikuskaritzaren bitartez burutzen den kontrola zilegi izateko lortu nahi den informazioa eskuratzeko beste bide ‘leunagorik’ ez egotea. Hori da bereziki administrazioak prozesuan bermatu behar duena. Izan ere, EKak ezartzen dituen eskubideen kontra joko luke administrazioaren eginkizuna, datu objektiboak oinarri moduan hartuta, lortu den helburura iristeko beste bide arinago baten erabilera nahikoa izango balitz¹⁰⁴.

Ezinbestean ikuskaritza eginbideetan hiru ezaugarri nagusi bete behar dira administrazioaren jarduera zilegi izateko. Hasteko aukeratutako neurria egokia izan beharko da. Gainera, neurri horren ezinbesteko erabilera justifikatua egon behar da. Azkenik, lortu nahi den helburuaren eta erabilitako neurriaren arteko lotura zuzena egiaztatu beharko da, baieztatuz horrela administrazioak burutuko duen kontrola pairatuko duen pertsonaren gaineko oinarrizko eskubideen murriztapenik arinena suposatuko duela.

Administrazioak kontrola burutzeko gaitasun hau beti zentzu subsidiario batean aurrera eramane behar du. Aurretiaz lehentasuna eman behar zaio kontrola pairatuko duen pertsonaren baimenaren bitartez beharrezkoa den informazioaren bilketa burutzeari. Hortaz, oinarrizko eskubide bat mugatu baino lehen administrazioaren ardura izan behar da egiaztatzea beste bide eraginkorragorik ez dagoela¹⁰⁵. Orokorrean, herritarrak administrazio publikoa bere funtzioetan laguntzeko betebeharra daukate. Diru sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren kasuan titular eta onuradunen ezinbesteko baldintza moduan ezartzen delarik¹⁰⁶.

Proporzionaltasun printzipioa behin finkatuta hau kasuan kasu Lanbidek ohikoak dituen ikuskaritza funtzioetan nola aplikatzen den zehaztu beharra dago. Horretarako, arestian aipatutako bi ikuskaritzen markoa finkatu behar da: etxebizitzaren eta bankuko datuen kontrola nola eramaten den aurrera hain zuzen ere.

¹⁰⁴ Zentzu horretan AGren 55/1996. urteko epaiaren 8. OJ.

¹⁰⁵ Zentzu horretan AGren 5762/2022. urteko autoa

¹⁰⁶ Zentzu horretan EAeko 14/2022. urteko azaroaren 22ko legearen 29.1. artikulua.

Diru errentak bermatzeko prestazioaren bitartez, administrazioak onuradun eta titularren diru mugimenduak kontrolatzeko ahalmena izango du. Zentzu horretan, intimitate eskubidearen urraketa eman daiteke. Horretarako, KA 110/1984. urteko azaroaren 26ko epaia aipatzea ezinbestekoa izango da. Kasu honetan, Finantza eta Ikuskaritzako Zuzendaritza orokorrak GSren zergadun baten banku mugimenduak ikertzeko agindua luzatu zuen, pertsona horren pasibo eta aktibo erreala zein zen jakiteko asmoarekin. Zergadunak KA aurrean babes errekurtsua planteatu zuen, ikuskaritza horrek bere intimitate eskubidea erabat urratzen zuela adieraziz. Epaia babes errekurtsua ez zuen onartu, hala ere, intimitate eskubidearen inguruan hainbat argibide eskaini zituen. Argi dago, bizitza pribatuaren inguruan banku kontuetan agertzen diren datuak pertsona baten intimitatearen parte direla, Konstituzioaren bitartez babestuta dagoen ondasun juridiko bat izanik.¹⁰⁷ Hala ere, eskubideari lege bitartez mugak ezarri ahal zaizkio, konstituzio bitartez babestuta dagoen beste interes baten aldeko muga den heinean: kasu honetan, karga publikoen banaketa zuzena egitea EK 31.1. artikuluan ezarritako betebeharra.¹⁰⁸ Horrenbestez, nahasten diren bi eskubideren aurrean egonda, modu proportzional eta eraginkor batean egikaritu beharko dira biak, eskubideek gutxieneko urraketa pairatu dezaten lortu nahi den helburua eraginkortasunez betetzen den bitartean. Intimitate eskubidea bestelako interes publikoekin harmonizatu behar izango da, eta horretarako kasuan kasuko egoerari erreparatu beharko zaio. Azpimarratu beharra dago, intimitate eskubidea oinarrizkoa den heinean momentu oro gailendu behar dela, hau izango delarik arau nagusia. Banku kontuak ikuskatzeko ahalmena eskubidearen salbuespen puntual moduan ulertu daiteke bakarrik, ikuskaritzak bete nahi duen helburu orokorra babestu ahal izateko.¹⁰⁹

Aztertutako epaia intimitate eskubideari mugak ezartzen dizkio, administrazioaren ikuskaritza ahalmenak onartuz: karga publikoei aurre egiteko argudioaren salbuespena aplikatuz hain zuzen ere. Baina, dirua bermatzeko errentaren kasuan kontributiboa ez den prestazio baten aurrean gauden heinean muga hau aplikagarria den zalantzan jarri daiteke, interes publikoari erantzuna ematen dion ikuskaritza baten justifikazioa lausoa eta zabalegia izan daitekeen esku hartze bat ahalbidetu dezakeelako.

¹⁰⁷ Zentzu horretan SANTAMARÍA PASTOR J.A (2005) *Sobre derecho a la intimidad, secretos y otras cuestiones innombrables*. Revista española de Derecho Constitucional. 170. orrialdea

¹⁰⁸ KAE 110/1984 azaroaren 26ko epaiaren 3. OJan azaltzen denaren arabera: *¿en qué medida la Administración puede exigir los datos relativos a la situación económica de un contribuyente? No hay duda de que en principio puede hacerlo*

¹⁰⁹ Zentzu horretan SANTAMARÍA PASTOR J.A (2005) *Sobre derecho a la intimidad, secretos y otras cuestiones innombrables*. Revista española de Derecho Constitucional. 171. orrialdea

Banku korrontearen informazioa intimitate eskubidearen barruan kokatzen den heinean, norbanakoen datu pertsonalen trataera nola burutu ahal den finkatu beharko da. Horretarako, KAren jurisprudentziak ezarritakoa kontuan hartu beharko da. Izan ere, legez datu pertsonalen bilketa ahalbidetzen bada ere, hau intimitate eskubidea urratu dezake ez bada modu zuzenean aurrera eramaten. Zentzu hertsian, modu zuzenean egiteak honako hau ekarri beharko du ezinbestean: berme egokiak egon beharko dira herritarraren bizitza pribatuaren datuak erabiltzerako unean. Hortaz, pertsona bati bere datu pertsonalen kontrol eta izate hutsa erabat urratzen zaionean, bere intimitate eskubidea urratu dela ulertu beharko da¹¹⁰. Zentzu negatibo batean definitzen da intimitate eskubidearen urraketa izan ere bere praktika eragozten duten mugak ezartzen direnean edo behar baino gehiago oztopatzen dutenean eskubide honen gozamina, urraketa baten aurrean egongo gara, nahiz eta legez praktika hori baimentzen den¹¹¹.

Dirua bermatzeko errentaren prestazioa jasotzen duten pertsonen datu ekonomikoen kontrolaren justifikazioa honako hau da: ziurtatzea bete beharreko baldintzak betetzen diren edo ez.¹¹² Kontrol honen gehienezko iraupena sei hilabetekoa izango da, hala ere lege bitartez ausazko edo zorizkoak diren kontrol prozedurak irekitzeko aukera aurreikusten da. Kasu honetan, legez onartzen den diskrezionalitate tarte baten aurrean gaude. Hala ere, honek ez du esan nahi juridikoki administrazioak esku hartzeko erabateko askatasuna izango duenik, ez da botere absolutu moduan ulertu behar: marko juridiko orokor baten barruan eraman behar da aurrera. Honen arabera, kontrola aurrera eraman ahal izango da beti ere horretarako ahalmena daukan organoak aurrera eramaten duenean, aurrera eramateko erabakia bakarrik oinarritu dezakeelarik kontrolaren helburua justifikatzen duten egitateak ematen direnean. Beti, interes publikoaren eta zuzenbidearen printzipio orokorraren izenean burutu beharreko kontrola izango da, alegia berdintasuna proportzionaltasuna eta ziurtasun juridikoaren izenean aurrera eramandako ekintza. Aukera hau zilegia izango da, ezin delarik nahastu arbitrariotasunarekin.¹¹³

¹¹⁰ Zentzu horretan KAE 254/1993; KAE 143/1994, maiatzaren 9koa 7. OJ; KAE 292/2000 azaroaren 30ekoa, 10. OJ

¹¹¹ Zentzu horretan KAE 11/1981 apirilaren 8koa, 8. OJ.

¹¹² Zentzu horretan 14/2022. urteko abenduaren 22ko legearen III. zioen azalpena eta 83.1. artikulua.

¹¹³ Zentzu horretan SÁNCHEZ MORÓN M. (2005) *Derecho administrativo: Parte General* Madrid: Editorial Tecnos. 91. orrialdea.

Behin baieztatuta bankuko datuen babesa intimitate eskubidearen parte dela, honen gaineko kontrola nola burutzen den ezarri behar da. Zehaztasun handiago batekin datu ekonomikoak datu pertsonalen parte direla esan beharra dago. Horrenbestez, datu hauen izaerak berak emango die trataera berezia: datu horren titularrak beti hauen gaineko kontrola izango du, baita hauen erabilera ere. Horrela, titularrak gaitasuna izango du legez kanpo burutzen den edozein trataera salatzeko. Norberak bere datuen edukitzaren bermea du. Berme hau muga moduan funtzionatuko du botere publikoentzat: datu hauek informazio iturri moduan erabili nahi direnean nahitaezko bermeak aplikatu behar izango dira. Aldi berean, partekatze honek suposatu ditzakeen arriskuen prebentzioa burutu beharko da. Datu pertsonalen jabea da informazio horren kontrola izango duen pertsona bakarra, ezin delarik inor gehiago kontrol horren titular izan. Hala ere, botere publiko batek datu horiek erabiltzeko nahia adierazten duenean hauen jabeak uneoro jakin behar izango du nortzuk duten modu zehatzean datu horietara sartzeko baimena, zertarako erabiltzen hari diren datu horiek eta zein da sarbide honen xedea¹¹⁴.

Beraz, Lanbidek burutzen duen bankuko datuen ikuskaritza herritarrak dituen bi berme mugatzen ditu. Alde batetik, eta zentzu negatiboan: intimitate eskubidea zeinaren bitartez pertsona batek bere eremu pribatutik hirugarren bat edo botere publikoa aldentzeko eskubidea aitortzen zaion. Eta bestetik, datu pertsonalen trataera zeinaren bitartez bizitza pribatuan ematen den informazio guztiaren kontrol eta sarbide absolutuaren eskubidea mugatzen den. Azken hau zentzu positibo batean izango du eragina, titularrari hainbat gaitasun juridiko eskaintzen dizkion heinean, hirugarrenek datu horien erabilera burutu nahi dutenean ezinbestean bete beharreko bermeak izango dituztelarik. Hala nola: datu horiek ezagutzeko titularraren baimena, edo datu horiek zertarako erabiliko diren adieraztea. Gainera, momentu oro datuen titularrak hauen gaineko kontrola izango du, kontrolak ezinbestean honako hau suposatuko duelarik: datuen sarbidea, zuzenketa eta ezeztatzea burutzeko erabateko askatasuna¹¹⁵.

Intimitate eskubidearekin eta bereziki etxebizitzaren bortxaezintasunarekin lotura zuzena daukan eginbide administratiboa aurrera eramateko aukera aurreikusten da legez¹¹⁶.

¹¹⁴ Zentzu horretan AGren 2837/2020. urteko epaia 5. OJ.

¹¹⁵ Zentzu horretan KAE 254/1993. urtekoa 7. OJ.

¹¹⁶ Zentzu horretan EAeko 14/2022. urteko abenduaren 22ko legearen 94.2. artikulua

Etxebizitza ezinbesteko ezaugarri moduan interpretatu beharra dago bizitza pribatuaren garapen egokia burutzeari dagokionez¹¹⁷.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak ezarritakoaren arabera etxebizitza batean sartu baino lehen administrazioak kontuan hartu beharreko ezaugarriak honako hauek dira. Hasteko, etxebizitzan sartu ahal izateko baimen judiziala bakarrik eman daiteke beti ere aurretiaz administrazioaren aldetik betearazpen ebazpena eman bada. Hortaz, baimen judizialaren eskaera administratiboa luzatu baino lehen ikuskaritza organoak hainbat eginbide burutu behar ditu. Alde batetik ikuskaritza prozedura bat irekita egon beharko da, gainera ezinbestean prozedura hori martxan dagoela jakinarazi behar izango zaio ikuskaritza bera pairatzen ari den pertsona zehatzari. Gainera, administrazioaren eginbidearen izaera betearazlea eta behin betikoa izan beharko da gehienetan, nahiz eta batzuetan ikuskaritza aukerak onartzen diren¹¹⁸.

Baimen hori eskaini baino lehen epaileak ere hainbat ezaugarri hartu behar izango ditu kontuan: ikertzen ari den pertsona ikuskatu nahi den etxebizitzaren titularra dela. Administrazioak burutuko duen egintza *prima facie* legezotasun antza daukala, sarrera bera ezinbestekoa dela administrazioaren helburua lortzeko. Eta azkenik, intimitatearen oinarrizko eskubidea ez dela behar baino gehiago urratzen, eskubidearen mugaketa administrazioak lortu nahi duen helburuarekiko proportzionala izanik.

Auto judizialak eta administrazioaren ebazpenak gutxieneko informazio hau jaso behar du. Alde batetik, etxebizitzan sartzearen helburua zein den modu argian ezartzea. Bestetik, subsidiaritate printzipioa oinarrizko duen beste bide egokiago baten ezinezkoa den erabileraren justifikazioa.

Behin aztertuta zeintzuk diren administrazio baita epaitegien aldetik etxebizitzan sartzeko baimena aurrera eraman ahal izateko eginkizuna bereziki deigarria dirudi bi organo hauei helburua lortu ahal izateko beste bide ‘arinago’ baten bilaketaren aurretiazko baldintza. Izan ere, diru errenta bermatzeko prestazioaren titularrak laguntza sozialaren jasotzaile izateko baldintzak betetzen dituela ziurtatu ahal izateko, bizileku ‘eraginkorra’ ziurtatzerako unean

¹¹⁷ Zentzu horretan KAE 82/1984. urtekoa.

¹¹⁸ Zentzu horretan AGren 5762/2022.urteko autoaren 5. OJ. AGE 3286/2019. urteko urriaren 10ekoa 2 OJ. AGE 3023/2020. urteko urriaren 1eko 3. OJ

badaude bide askoz arinagoak, helburu berdina lortzera eramaten dutenak. Hala nola: argiaren eta uraren gastuaren ondorioz sortutako fakturak, auzokideen deklarazioak eta abar. Bide hauek askoz gutxiago urratuko lukete intimitate eskubidea, baina lege bitartez aurreikusten den aukera askoz gogorragoa da. Honek, administrazioaren eginbideetan proportzionaltasun printzipioa aurrera eramaten den zalantzan jartzen du.

Ikuskaritza burutzerako unean, edozein dela aurrera burutuko den eginbidea, administrazioak uneoro ikertua den pertsonaren eskubideak bermatu beharko ditu, ahalik eta gutxien urratzeko haren eskubideak. Gogorarazi behar da beraz, arestian aipatu moduan intimitate eskubidearen gainean burutzen den muga puntuala izan beharko dela beti. Hau oinarri moduan harturik, kontrola burutu ahal izateko legeak ezartzen duen sei hilabeteko tartea zabalegia izan daiteke. Izan ere, tarte horretan ikuskaritza organoak nahi beste eginbide burutzeko aukera izango du, proportzionaltasun printzipioaren eraginkortasuna zalantzan jarritz.

6.2.2 Dirua itzultzea entzunaldirik gabe: *a posteriori* kontrola

Administrazioak burutzen dituen prozedurak, eraginkorrak izateko eta zuzenbidearekin bat egiteko, hainbat elementu material eta formal bete behar izango dituzte: egikaritza ahalmen eta prozeduraren faseei erreparatuta hain zuzen ere. Hala ere, batzuetan administrazioak burututako egintzetan forma akatsak agertzen dira, hauek deuseztagarritasunera eraman dezaketelarik administrazioaren erabakia¹¹⁹. Hori horrela, marko honetan kokatu behar dira entzunaldirik gabe diru itzulketa galdatzen dituzten administrazio egintzak.

Administrazio publikoaren ebazpenek izaera betearazlea dute, hala ere puntu honetara iristeko aurretiaz hainbat eginbide burutu behar dira. Bere interesen (interes publikoa) aldeko ebazpenak sortzeko ahalmena dauka administrazioak, ez du zertan epai deklaratio edo betearazle baten beharrik izango. Hori, autotutela printzipioa deritzo¹²⁰. Prozedura betearazle honek hainbat baldintza bete behar izango ditu zilegia izateko. Hasteko, administrazioaren ebazpenaren bitartez ezarri dena lortu ahal izateko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira, baina bakarrik ezinbestekoak direnak.

¹¹⁹ Zentzu horretan 39/2015. urteko urriaren 1eko legearen 48.2. artikulua.

¹²⁰ LÓPEZ RAMÓN F. (1988) *Límites Constitucionales de la autotutela administrativa*. Revista de administración pública. 58. orrialdea

Gainera, betearazpena aurrera eraman baino lehen, erabaki horren ondorioz kaltetua izango den pertsona edo pertsona taldea ohartarazi behar izango da¹²¹. Ezin da ezaugarri hau ahaztu izan ere, ebazpenaren bitartez ezarritako helburua lortzea ezinezkoa bilakatzen duten jakinarazpenak izango dira ohartarazpen betebeharra alde batera utziko dutenak.¹²²

Beraz, administrazioak *favor libertatis* printzipioaren arabera jardun behar izango du, herritarraren askatasuna gutxien murrizten duen neurria hautatuz¹²³. Proporzionaltasun printzipioa izan behar da beti prozedura honen oinarri. Betearazpena aurrera eramateko bidea ezin da gehiegizkoa izan lortu nahi den helburuarekiko.

Testuinguru honetan dirua bermatzeko errentaren prestazioaren kasuan, Lanbideren esanetan prestazioaren dirua itzuli beharko da honako arrazoiak ematen badira¹²⁴: prestazioaren kantitatea eguneratu denean, prestazioaren kontrola burutzen denean, zehapen prozedura bat martxan jarri denean edo edozein ekintzatik beti ere egiaztatu denean, titularrak dagokion diru kantitatea baino gehiago kobratu duela administrazioaren eskutik iruzurra egin duelako edo ez dituelako datu zuzenak administrazioaren esku jarri. Egoera hau ematen denean, administrazioak prestazioa jaso duen pertsonak aurrera eramandako huts egitea adierazi eta egiaztatu behar izango du prozedura deklaratio bitartez. Behin hau adierazita, entzunaldi tarte eman beharko zaiolarik, deklarazio horren ondorioz kaltetua izan den pertsonari. Tarte hau behin igarota, administrazioak prozedura deklaratio hori betearazi ahal izateko aukera izango duelarik.

Kasu hauetan, administrazioak autotutelaren printzipioaren arabera jardungo du, beti ere jaso den diru kantitatea ez zilegia dela adierazten duen ebazpena irmoa bilakatzen den unetik aurrera.¹²⁵ Egoera guzti hauek ezaugarri bat dute amankomunean: eskubide bat aitortzen duen egintza administratiboaren berrikuspena da.

Aurretiaz adierazi bezala, diru itzulketa prozesua arrosoki askoren ondorioa izan daiteke. Hauen arabera, administrazioak berme maila bat edo bestea hartuko duelarik. Alde batetik, diru itzulketa zehapen moduan aplikatzen denean, administrazioaren zigor ahalmena aurrera

¹²¹ Zentzu horretan 39/2015. urteko urriaren 1eko legearen 99. artikulua

¹²² Zentzu horretan SÁNCHEZ MORÓN M. (2005) *Derecho administrativo: Parte General* Madrid: Editorial Tecnos. 540. orrialdea.

¹²³ Zentzu horretan 39/2015. urteko urriaren 1ko legearen 100.2. artikulua

¹²⁴ Zentzu horretan EAEko 14/2022. urteko abenduaren 22ko legearen 64.1 artikulua

¹²⁵ Zentzu horretan EAEko 14/2022. urteko abenduaren 22ko legearen 64.2. artikulua

eramaten denez, berme ugari hartu behar dira kontuan, hauek ez hartzea prozeduraren deuseztasuna suposatuko dutelarik. Aldiz, diru itzulketa prozesua akats baten ondorioa izan denean, administrazioak bermeak hartu behar baditu ere ez dira hain zurrnuak izango, hauek ez betetzea prozeduraren deuseztagarritasuna ekarriko dutelarik.

Egoera batzuetan, ukaezina da administrazioak diru itzulketa prozedura aurrera eramaten duenean bere zehapen ahalmena aurrera eramaten ari dela¹²⁶, eta ondorioz herritarrari prozesuari dagozkion bermeak aitortu behar zaizkio ezinbestean. Hauek dira zehapen administratiboaren ezaugarri nagusiak: hasteko, administrazio autoritateek ezarritako zigorrak dira. Gainera, herritar bati kalte bat (eskubideen mugaketa bat) ekartzen dioten adierazpenak dira. Azkenik, aurreko bi baldintzak elkartzen dituen ezaugarria ezinbestekoa delarik: zehapena kalte moduan inposatu behar izana¹²⁷. Egoera hauetan kaltetua den pertsonari honako eskubideak aitortzen zaizkio lege bitartez¹²⁸: leporatzen zaion egoeraren inguruko informazioa jasotzera, zein den eskumena duen organoaren jakinarazpena eta zehapena ezartzeko oinarri legala baita administrazio erantzunkizun ezaren presuntziorako eskubidea ere.

Berme hauen barruan dirua bermatzeko errentaren zehapen prozesuan hauetako batek eskuratzen du nagusitasuna, bereziki honen falta askotan eman delako: ikertua den pertsonari entzuteko betebeharra, bere defentsa eskubidaren egikaritzea burutu ahal izateko. Gai honen inguruan Konsituzio Auzitegiak argibideak eskaini ditu¹²⁹, berretsiz EKren 24. artikuluan aurreikusitako eskubideak administrazioaren zehapen prozeduretan ere aplikagarriak direla. Izan ere, aurretiazko entzunaldia ez bada ospatzen eta kontraesan printzipioaren errespetua ez bada betetzen ezin izango da zehapen administratiborik ezarri. Beraz, administrazio publikoak duen zehapen aukera EKren 25. artikulua araberako egikaritu ahal izateko ezinbestekoa izango da, prozesu penalean ematen diren berme berdinak aintzatestea kaltetuari. Izan ere, EKren 25. artikulua estatuari *ius puniendi* ahalmena eskaintzen dio zehapen eta zigorrak ezartzeko legezko aukera aurreikusiz. Hala ere, ez du bere eremu

¹²⁶ Zentzu horretan EAEko 14/2022. urteko abenduaren 22ko legearen 103. artikulua. Arau hausteen zehapenak aurreikusterako uanean, oinarri moduan beti ezartzen da titularrak kobratutako kantitate ez zilegiaren itzulketa. Honi, egoeraren larritasunaren arabera, zehapen gehiago atxikitu ahal izango zaizkiolarik.

¹²⁷ REBOLLO PUIG M. CARRASCO IZQUIERDO M. ALARCON SOTOMAYOR L., BUENO ARMIO A. (2005) *Panorama del derecho administrativo sancionador en España*. Revista Estudios Socio-Juridicos 7 (1) 23-74.25. orrialdea.

¹²⁸ Zentzu horretan 39/2015. urteko urriaren 1eko legearen 53.2. artikulua.

¹²⁹ Zentzu horretan KAE 29/1989. urteko otsailaren 6koa, 6. OJ. KAE 98/1989 ekainaren 1ekoa 8.OJ. AGE 1382/2020. urteko urriaren 22ko 2. OJ.

zehatza ezartzen. Zehaztasun gehiagorekin, baieztatzen da *ius puniendia* zigor eta administrazio eremuetara zabaltzen dela¹³⁰. Baieztapen honen inguruan ezarritako doktrinak islatzen duen moduan: administrazio zehapen prozesuan ez dira bakarrik errespetatu behar literalki 24. artikuluan aurreikusitako bermeak, izan ere zentzu eraginkor batean hauen egikaritzea ziurtatu behar izango da¹³¹.

Hurrengo prozedura bete behar izango da beti diru itzulketa prozesua aurrera eramaten denean, beti ere zehapen administratibo moduan ez denean ulertu. Ebazpenean diru itzulketaren zergatia, kantitatea eta zehaztapenak adierazi behar izango dira, baita arau haustea zein izan den ere. Ebazpena jakinarazten den unetik aurrera hilabete bateko tartea utzi behar da, jasotzaileek alegazioak tarteratu dezaten. Horrenbestez, ohartarazpena eta alegazioak tarteratzeko aukera ezinbestekoa izango da beti. Honen faltak prozeduraren deuseztagarritasuna ekartzen duelako: azken finean kaltetutako pertsonari bere defentsa eskubidea baita errugabetasun presuntzioa ere urratzen zaizkiolako. Azken eskubide honen esanahia honako hau delarik: kaltetuak arau haustea burutu izanaren frogaren karga administrazioaren gainean geratuko da¹³². Gainera, froga hori ez du baliorik izango oinarrizko eskubideen urraketa burutu baldin bada froga lortu ahal izateko¹³³, beraz froga modu zilegian legeak ezarritako moduan lortu behar izango da beti.

AGak ezarritako jurisprudenziari erreparatu beharko zaio. Honen arabera entzunaldirik gabe aurrera eraman den prozedura administratiboa deuseztagarria izango da beti ere honako eragina sortu badu subjektu kaltetuaren gainean: defentsa eskubidearen oztopo materiala egon dela egiaztatu behar da, aldi berean oztopo horren eta administrazio egintzaren arteko kausalitate harremana frogatuz¹³⁴.

Zentzu honetan ezberdindu beharra dago administrazioak bere ebazpen deklaratiboaren gainean aldaketak proposatzeko tartea eskaintzen duenean eta jasotzaileak tarte horren erabilera gauzaten ez duenean eta administrazioak tartea bera eskaintzen ez dituen egoeren artean. Izan ere, bigarren kasuan emango litzateke defentsa eskubidearen urraketa eta zentzu

¹³⁰ HERNANDEZ GONZALEZ F.J. (2005) *La reserva de ley en materia sancionadora. Avances, retrocesos y contradicciones de la jurisprudencia del Tribunal Constitucional* Madrid: Revista de Administración Pública. 170. orrialdea

¹³¹ Zentzu horretan KAE 18/1981 ekainaren 8koa 2. OJ. KAE 54/2015 martxoaren 16koa 7. OJ. KAE 9/2018 otsailaren 5koa 2. OJ.

¹³² Zentzu horretan KAE 7/1998. urteko urtarrilaren 13koa 5. OJ.

¹³³ Zentzu horretan KAE 127/1996 uztailearen 9koa 3.OJ.

¹³⁴ Zentzu horretan AGren 2003. urteko uztailearen 11ko epaia.

horretan deuseztagarria izango litzateke administrazio erabakia, materialki kaltetua izan den pertsonari ez zaiolako eskaini erabaki horren kontra joateko aukerarik¹³⁵. Izan ere, batzuetan diru itzultze prozesuak ez dira berez zehapen prozedurak, akats bat azalarazten duten eginbide deklaratioak baizik. Ondorioz AGren esanetan, hauetan ez da bermatu behar Konstituzioaren bitartez oinarrizkoak diren defentsa eta errugabetasun presuntzioaren eskubideak, horregatik nahiz eta ezinbestekoa izan entzunaldi tartea eskaintzea ezin izango dira inoiz deusezak izan aukera hau ezeztatzen dituzten prozedurak, bai ordea deuseztagarriak¹³⁶.

Horrenbestez, prozedura administratiboan akats formala egoteak ez du zuzenean suposatu beharko kaltetuaren defentsa eskubidea urratu izana eta ondorioz prozedura deuseza denik. Kasuan kasu akats administratiboak zein eragin material izan dituen aztertu beharko da¹³⁷. Izan ere prozesuan bermatzen den entzunaldi eskubidea ez du zertan bat egin behar Konstituzioan adierazten den defentsa eskubidearekin. Hauen arteko lotura zuzena bakarrik baieztatzen da prozesuan entzunaldi aukera ezabatzeak materialki kaltetuaren defentsa eskubidea urratzen duenean. Kasu honetan, baldintza hau betetzen dela baieztatzen da, diru sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa itzultzea agintzen duten administrazio egintzetan entzunaldirako aukera ematen ez den egoeratan. Izan ere, aurretiaz aitortu den eskubide bat atzera eraginkortasunez ezetzi ahal izateko ezinbestean entzunaldi aukera eman beharko zaio kaltetuari, ez bakarrik administrazio prozedura formak horrela eskatzen duelako baizik eta kaltetuaren defentsa eskubidea baita errugabetasun presuntzioaren oinarrizko eskubideak ere bermatu ahal izateko.

Laburbilduz, dirua itzultzeko administrazio eginbidea martxan jarriko da prestazioa jasotzeko baldintzak ematen ez direla egiaztatu denean edo zehapen prozesuan. Hala ere, prozesu honek badauzka bere mugak, ezin izango da aurrera eraman hiru kasu nagusietan¹³⁸. Hasteko, administrazio publikoari erreklamazio akzioa burutzeko epea preskribatu zaionean ezin izango da diru itzulketarik eskatu, horretarako lau urteko preskripzio epea hartuko da

¹³⁵ Zentzu horretan AGren 2008ko azaroaren 12ko epaia.

¹³⁶ Zentzu horretan AGren 2005eko martxoaren 16ko epaia.

¹³⁷ Zentzu horretan KAE 145/1986. urteko azaroaren 24koa, 3. OJ.

¹³⁸ Zentzu horretan Administrazio Publikoen Prozedura Orokorraren 39/2015. urteko urriaren 1eko legearen 110. artikulua eta Resolución 2019R-2234-17 del Ararteko de 15 de marzo de 2019, que recomienda al Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco que revise una resolución que declara la obligación de devolver unas prestaciones indebidamente percibidas.

kontuan¹³⁹. Zehazki, epearen zenbatezpena hasiko da administrazioak dirua itzultzeko arrazoiaren berri duen unetik aurrera. Bigarrenik, prestazioaren jasotzaileak diru laguntza jaso bitartean administrazioarekin ‘fede onez’ jokatu duen kasuetan ere ezin izango zaio erreklamaziorik egin. Izan ere, titularrak laguntza jaso bitartean administrazioak galdatzen dion informazio guztia eskaintzen badu datu horiek prestazioaren kantitate zehatza kalkulatu ahal izateko balio zuten, datuen erabilera edo eguneratze ezaren ‘akatsa’ administrazioak bereganatu behar duelarik herritarrak bere betebeharrak aurrera eraman dituen kasuetan. Azkenik, administrazioak aitortutako prestazioaren izaerari erreparatu behar zaio: bizirauteko helburu argia du diru errenta bermatzeko laguntzak. Horrenbestez, diru laguntza jasotzen den unean subjektuak pairatzen duen egoera ikuskatu ahal izango da, baina inolaz ere ezin izango da atzeraeraginkortasunez, *ex tunc*, aplikatu subjektu titularren egoera berria erreferentzia gisa hartuz¹⁴⁰.

6.3 Koordinazio lanak hobetzea

Estatu mailan diru sarrerak bermatzeko prestazioa sortzeak administrazio publiko ezberdinen arteko ezinbesteko harmonizazioa egotea eskatu du. Lehen adierazi bezala, AAEE gizarte laguntzan aurreikusita dituzten tresnak subsidiarioak izango dira estatuak GSren sistema ez kontributiboan aurreikusten duen prestazioari dagokionez.

Zentzu horretan, bi sistemen arteko koordinazio lana AAEEen esku geratuko da¹⁴¹. EAEn kasuan, estatu mailako prestazioaren aukerak bi ezaugarri nagusi suposatu ditu¹⁴². Alde batetik, gizarte bazterketa ekiditeko aurretiaz EAEn zegon sistema aukera bakarra izateari utzi izan dio, estatu mailan ‘oinarrizko prestazio’ moduan aurkezten den aukera kontuan hartuz. Bestetik, estatu mailako prestazio honi dagozkion funtzio eta zerbitzuen kudeaketa EAek bereganatu duelako¹⁴³. Horrenbestez, izaera ezberdina duten bi prestazioen arteko

¹³⁹ Zentzu horretan Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legea 1/1997. urteko azaroaren 11ko Dekretuaren bitartez onartua. 47.1. artikulua.

¹⁴⁰ Zentzu horretan Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2018. urteko irailaren 26ko epaia. 48921/13. Espainiar estatuan aplikagarri EKren 10.2. artikulua bitartez.

¹⁴¹ Zentzu horretan RAMÍREZ BENDALA M.D (2021) *IMV y rentas autonómicas: un nuevo marco para una recomendable armonización aún pendiente*. Jaén: Editorial Universidad de Jaén. 138. orrialdea

¹⁴² Zentzu horretan 14/2022. urteko abenduaren 22ko legearen III. zioen azalpena.

¹⁴³ Zentzu horretan 19/2021. urteko abenduaren 20ko legearen bosgarren xedapen gehigarria eta Orden TER/253/2022, de 30 de marzo, por la que se publica el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias Administración del Estado-Comunidad Autónoma del País Vasco, de 16 de marzo de 2022, de establecimiento del convenio para la asunción por la Comunidad Autónoma del País Vasco de la gestión de la prestación no contributiva del ingreso mínimo vital.

bizikidetzan modu zuzenean kudeatu behar izango da. Estatu mailan aurreikusten den sistemaren deszentralizazioa eman da.

Hala ere, estatuaren prestazioak oinarri moduan funtzionatuko du. Honen esanahi materiala: pertsona baten beharrezko egoera kalkulatzeko eta GSko prestazioa kobratzerako unean ez da kontuan hartuko AAEEaren eskutik pertsona horrek aurretiaz jasotzen duen laguntza ekonomikoa¹⁴⁴.

Azpimarratu beharra dago GSren barruan kokatzen den bizirauteko prestazioaren sortze arazoia: nazio mailan batasunaren adierazle den oinarrizko babes sare homogeneoa ezartzea dela. Helburu hau legea sortzearekin lortu bada ere, estatuak berriro ere AAEEen esku utzi izan du prestazio honen bateragarritasunaren planteamendua aurretiaz gizarte laguntzan zeuden araudiaren esku, berriro ere administrazioen artean pobreziaekin amaitzeko bide anitz planteatzen direlarik. Pobreziaekin amaitzeko helburua benetan eraginkorra den zalantzan jartzen du administrazio zentralak hartutako erabakia, xede berdina bada ere ez delako sistemen arteko koordinazio homogeneorik bultzatu, AAEE bakoitzak abiapuntu berdina izan arren gizarte bazterketa ekiditzeko bide oso ezberdinak aurreikusi dituztelako¹⁴⁵.

EAEren kasuan, bi sistemen arteko bateragarritasuna onartu izan da.¹⁴⁶ Hala ere, lehentasuna eskaini zaio estatu mailan GSren sistemak eskaintzen duen laguntzaren eskaerari, hau behin eskatuta bateragarria izango delarik, AAEE mailan aurreikusten den laguntzarekin egoerak ahalbideratzen duen kasuetan.

Horrenbestez, lehen AAEEak bereganatzen zuen gastuaren zati bat GSren sistemaren poltsa bakarretik aterako da, gizarteratzeko ekimen unitarioari erantzuna emanez. Hala ere, honek printzipioz ez du desagerrarazten EAEko prestazioa jasotzeko aukera, baina bai lehentasun ezberdina eskaintzen zaiela. Azken finean, bi prestazio egoteak bi baldintza marko ezberdinetara egokitzea eskatuko du titular eta onuradunei dagokionez, baita bi eskaera tarteratu behar izateko aurrebaldintza.

¹⁴⁴ AGUILERA IZQUIERDO R. et al (2021) *‘El ingreso mínimo vital: una perspectiva global: regulación estatal, derecho comparado y conexión con rentas mínimas autonómicas’* Madrid: Agencia Estatal Boletín Oficial del Estado. 379. orrialdea.

¹⁴⁵ AGUILERA IZQUIERDO R. et al (2021) *‘El ingreso mínimo vital: una perspectiva global: regulación estatal, derecho comparado y conexión con rentas mínimas autonómicas’* Madrid: Agencia Estatal Boletín Oficial del Estado. 448. orrialdea.

¹⁴⁶ EAEko 14/2022. urteko abenduaren 22ko legearen 11.1 eta 11.2. artikuluen arabera.

Gainera, koordinazioak nagusitasuna eskuratzen du herritarrari babesa eskaintzerako orduan. Izan ere, pertsona askok lan egin bitartean (kotizatzean) diru sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren titular dira. Zentzu honetan, gizarte laguntzak nagusitasuna eskuratzen du. Nahiz eta langielak GSan kotizatu ez duelako berme nahikorik sistema horretan laguntza gehiago jaso ahal izateko eta horrenbestez, administrazio publikoaren begietara herritar hutsaren izaera jasoko du, beharrian egoeran laguntza eskaini behar izango zaiolarik. Beraz, GSren eta gizarte laguntzaren barruan garatzen diren prestazioak ez dira osagarriak dira haien artean¹⁴⁷.

Ukaezina da gizarteratzeko ahalik eta aukera gehiago egotea printzipioz onuragarria den aukera izango dela. Hala ere, modu zuzenean kudeatu behar izango da, prestazioen aintzatespena gauzatzekoan egoera zaurgarrian dauden pertsonen gehiegizkoa diren izapide burokratikoak ekiditu behar izango direlarik. AAEEen politikak ez dira agortu behar orain estatu mailan gizarteratzeko aukera aurreikusi denean. Izan ere, zentzu honetan AAEEk izan duten nagusitasuna eta hobekuntza markoa indartzeko aukera moduan ulertu beharko litzateke, ez bakarrik estatuak eskaintzen duen diru laguntzaren diru kantitate gehigarri moduan, tartaratzeko prozesuan ere.

7. ONDORIOAK

Diru laguntzak bermatzeko errentaren sistemak bi ardatz nagusi ditu. Alde batetik politika pasiboa, zeinaren bitartez bizikidetzaren unitateari diru sarrera bat ziurtatzen zaion hilabetero. Bestetik, Lanbiderekin hitzartutako programen bitartez lan munduan barneratu ahal izateko politikak planteatzen dira. Sistema honen arabera, gaur egun gizarteak sufritzen duen bazterketa eta pobrezia aurre egiteko, irtenbide bakartzat enplegu bat lortzea izango litzateke. Aurrera jarraitu baino lehen lana eta enpleguaren arteko ezberdintasuna zehaztu behar da. Izan ere, enplegua ordaindutako lan moduan ulertu beharra dago.

Hala ere, errealitatea zeharo ezberdina da. Urteak aurrera joan ahala agerian dago enpleguak gero eta urriagoak direla eta pobrezia aurre egiteko mekanismoek beste bide batetik jo behar

¹⁴⁷ AGUILAR MARTIN M.C. et al. (2021) *seguridad social para todas las personas: La protección de la seguridad social a las personas en situación de vulnerabilidad económica y fomento de su inclusión social*. Murcia: Ediciones Laborum S.L. 206. orrialdea.

dutela. Izan ere, EA Eren legearen bitartez pobreziari aurre egiteko irtenbidea, pertsona indibidualeren edo kolektiboki bizikidetza unitatearen gaitasun ekonomikoa hartzen da kontuan. Baina, askotan lanaren bitartez lortutako diru sarrerak ez dira nahikoak bizitza duin bat izatera heltzeko, horren adierazle dira prestazioa jaso bitartean lanean dauden pertsonen egoerak.

Hortaz, hasiera batean diru errentak bermatzeko prestazioa merkatuarekin ez lotutako eskubide moduan planteatzen den arren, bere amaiera merkatuan bertan aurkitzen du (nahiz eta helburu nagusia pobreziarekin amaitzea izan eta ez lanaren aktibazio zuzena). Jasanezina den egoera bat sortuz. Ondorioz, eskubide hau ezin da kontraprestazio batekin aurkeztu. Alegia, pertsona bati ezin zaio eskatu gutxieneko duintasun batera iritsi ahal izateko inolako betebeharririk aurrera eramatea, eta are gutxiago lanaren bitartez. Lana eta duintasuna ez doaz eskutik. Pertsona batek beharizan egoera sufritzerako unean duintasunera heltzeko aukera eskaini behar zaio, merkatuari edo administrazio publikoari horren truke inolako ‘krediturik’ ordaindu gabe.

Sistema honen barruan laguntza jaso ahal izateko administrazioak ezarritako hainbat ‘filtro’ pasatu behar dira, ikuspuntu publikoaren arabera beharizan egoera eta prestazioa jasotzeko eskubidea dagoela egiaztatu ahal izateko. Hala ere, jasotzaile izateko ezaugarri hauek askotan ez dute bat egiten gizarte bazterketa gehien sufritzen duten pertsonen egoerarekin. Horren adibide argia atzerritarren egoera da, erroldatzeko ezintasunak prestazio honen titular izateko aukera erabatean baztertzen dielako. Gizartearen begietan errealitate hau ez aurreikustek zuzenean zaugarritasun egoera larrian dauden pertsona asko ikusezin bihurtzea suposatzen du.

Arestian aztertu bezala bizikidetza unitateari prestazioa jaso ahal izateko eskatzen zaizkion baldintzak gehiegizkoak dira. Baldintza hauen eskaerak ez dute zuzenean laguntzen pobrezia egoera murrizteari, baizik eta pobrezia egoeran dauden pertsona askori gutxieneko duintasun batera iritsi ahal izateko aukerarik utzi gabe. Izan ere, duintasun egoerak ez du zerikusirik izan behar lurralde eremu batean gutxieneko denbora tartean erroldatua egotearekin, adinarekin edo bizikidetza unitateak dauzkan baliabide ekonomikoekin. Duintasuna gizakiari atxikitzen zaion ezaugarria den heinean indibiduala eta betirakoa izan behar du, eskubide subjektibo huts moduan edo eskubide unibertsal gisa interpretatu beharko litzatekeelarik prestazioa eta ez ordea eskubide subjektibo baldintzatu moduan.

Eskubide sozial honen egikaritza zentzu kolektibo batean eramaten da aurrera gehienetan, bizikidetzaren unitatearen bitartez. Hala ere, eskubide sozialak norberaren askatasun indibiduala aurrera eramateko ezinbesteko tresna moduan definitu dira. Beraz, ezin da ulertu autonomia pertsonalaren aldeko apustua egiten denik legegilearen aldetik. Horrelako mekanismoek ez dute garapen indibiduala bultzatzen. Duintasunaren titulartasuna indibiduala izan behar da beti, oinarrizko eskubide zibilen arabera ziurtatzen den askatasuna erabatean gozatu ahal izateko.

Pertsonak beharrian egoera sufritu eta gero diru sarrerak bermatzeko errentaren eskaera tartertzeko aukera izango dute, gizarte laguntza *ex post* iristen delarik. Hortaz, administrazio publikoek beharrian egoera hau inoiz ez iristeko mekanismo aktiboak planteatu beharko lituzkete. Izan ere, lanpostu batek eskaintzen duen ziurtasun ekonomikoa ez da mugagabea, bai ordea gizabanakoaren duintasun eskubidea. Ondorioz, administrazioak gizarte bazterketa ekiditeko *ex ante* tresna eta baliabideak jarri beharko lituzke martxan.

Gainera, administrazio publikoak gero eta gehiago handitu izan ditu prestazioa jasotzen duten pertsonen gaineko kontrola. Pobrezia egoeran egoteak administrazioari egoera hau sufritzen duten pertsonen fiskalizazioa ahalbidetuko balu bezala, administrazioak kontrol horretan jarritako baliabideak gehiegizkoak dira askotan, prestazioaren gaineko egoeren malgutasunerako tarte txikia utziz. Honek, berriro ere ez du legearen xedea, pobreziarekin amaitzea eta gizarte bazterketa ekiditea, lortzen laguntzen. Izan ere, askotan kontrako efektua sortzen du. Egoera zaurgarrienean dauden pertsonen erabakiak zalantzan jartzen dira, eta horrela gizartearen begietan pobreziaren estigmatizazioa bultzatu da.

Oinarrizkoa den eskubide baten berme publikoa ezin du suposatu bestelako oinarrizko eskubideen zapalkuntza. Zentzu horretan, gutxieneko baliabide ekonomikoak bermatzeko prestazioaren aitortpenak ez du intimitatearen eta norberaren garapen pertsonalerako ezinbestekoak diren espazio eta datuen urraketa suposatu behar. Egia da eskubideak ez direla mugagabeak. Baina mugak beti proportzio zentzudun eta arrazional batekin ezarri behar dira. Azken finean, administrazioak diru errentak bermatzeko prestazioaren titular eta onuradunen gainean burutzen duen ikuskaritza funtzioa eskubide baten egikaritza ahalbidetzeko ezin da ezinbestekoa izan. Alegia, oinarrizkoa den gizarte berdintasun batera iritsi ahal izateko, ez da botere publikoaren baimena behar, bai ordea laguntza.

Pobrezia pairatzea ez da erabaki indibiduala. Egoera honetara iristeko gizarte faktore asko parte hartzen baitute, norberaren erabakitik kanpo dauden ezaugarriak izanik: jatorria, langabezia, generoa, heziketa maila, hizkuntza, gaitasun ekonomikoa eta abar. Beraz, honi aurre egiteko ezin da irtenbide indibiduala planteatu, horrela sufritzen den egoeraren erantzukizuna pertsonaren gainean geratzen baita modu eksklusiboan (edo bere bizikidetzaren unitatearen gainean, erantzukizuna zabalduz, baina zentzu pribatu batean ulertuz oraindik) eta errealitatea ez da hori.

8. BIBLIOGRAFIA

AGUILAR MARTIN M.C. et al. (2021) *seguridad social para todas las personas: La protección de la seguridad social a las personas en situación de vulnerabilidad económica y fomento de su inclusión social*. Murcia: Ediciones Laborum S.L.

ANSUÁTEGUI F.J. et al. (2009) *Los derechos sociales como una exigencia de la justicia*. Madrid: Universidad de Alcalá.

ARNOSO M. MAZKIARAN M et al (2011) ‘*Acceso de la población inmigrante en la Comunidad Autonoma Vasca a los servicios y prestaciones*’ Vitoria-Gasteiz: Ararteko

BARRAGUÉ CALVO B. (2023) *La red de garantía de ingresos en España en tiempos de crisis. Las rentas mínimas de inserción frente a la alternativa de la renta básica* Estudios de Deusto, Vol. 57/2, Bilbao, julio-diciembre 2009. 49-75

BOGDANDY A. UGARTEMENDIA J.I. ARNAIZ SAINZ A. MORALES-ANTIONAZZI M. (2012) ‘*La tutela jurisdiccional de los derechos: Del constitucionalismo histórico al constitucionalismo de la integración*’. Bilbao: IVAP

BOLLAIN URBIETA, J.; RAVENTÓS PAÑELLA D. (2018). «*La renta básica incondicional ante las limitaciones de las rentas mínimas*»; Lan Harremanak, 40, 90-114.
<https://doi.org/10.1387/lan-harremanak.20332>

CEREZO MARISCAL J.M (2016) *Praxis de la Inmigracion Irregular en España del siglo XXI* UNED: Escuela de Doctorado.

DELGADO DEL RINCÓN L.E (2022) *El derecho de la prestación social del ingreso mínimo vital: algunas consideraciones sobre sus elementos y problemas competenciales*. UNED: Revista de Derecho Político N 116, enero-abril, 2023, págs 47-76.

DE LA CAL M.L. (2014) *La garantía de rentas mínimas en el estado Español. Especial Referencia a la RGI Vasca*’ Huelva: Universidad de Huelva. 103-135.

DE LA RICA S. GORJÓN L. (2018) '*El impacto de la Renta de Garantía de Ingresos en Euskadi*' Papeles de la Economía Española N°156.

DIAZ MORDILLO M.A. (2020) El Ingreso Mínimo Vital como reto social: una visión práctica Cáceres: Revista Internacional de la Protección Social 2020 Vol. N° 2.

RAMOS QUINTANA M.I (2020) El ingreso mínimo vital como instrumento para combatir la pobreza y la exclusión desde el sistema de la Seguridad Social. Revista Hacienda Canaria N°53.

EGÍO GARCÍA V.M, MEDINA RUÍZ E. (2020) Del paradigma funcionalista a la teoría del conflicto: Estado del Bienestar, agentes de orden y aliados del cambio en tiempos del Covid-19. La Razón Histórica, n. 46.

EÍAS ORTEGA, Á. (2018). *Prestaciones sociales y reparto justo de la riqueza*. Lan Harremanak - Revista De Relaciones Laborales, (40). <https://doi.org/10.1387/lan-harremanak>.

EÍAS ORTEGA A. (2021). «Buena oportunidad para aprobar ahora una Renta Básica Incondicional en la Comunidad Autónoma Vasca»; Lan Harremanak, 46, 84-113. (<https://doi.org/10.1387/lan-harremanak.23177>).

EÍAS ORTEGA A. RINCÓN GARCÍA L. (2016) Algunas virtualidades de la Renta Básica. Centro de Documentación Hegoa. Boletín de Recursos de Información N° 48. https://boletin.hegoa.ehu.eus/assets/templates/45/Bolet%c3%adn_n%c2%ba48.pdf?14794704
81

FERNÁNDEZ RAMOS S. (2002) *La actividad administrativa inspectora. El régimen jurídico general de la función inspectora*, Granada: Comares.

FORNS FERNÁNDEZ M.V (2020) 'La garantía de una renta básica de ciudadanía como Instrumento del Estado del Bienestar en transformación'. Revista de Investigações Constitucionais, Curitiba, vol. 7 n. 1, p. 11-58, jan./abr. 2020. DOI: 10.5380/rinc.v7i1.73866.

GARCÍA SCHWARZ R. (2011) *Derechos Sociales: imprescindibilidad y Garantías*. Navarra. Editorial Aranzadi, SA.

HERNANDEZ GONZALEZ F.J. (2005) *La reserva de ley en materia sancionadora. Avances, retrocesos y contradicciones de la jurisprudencia del Tribunal Constitucional* Madrid: Revista de Administración Pública.

LONGAS J.C. (2022) *Economía: la excepcionalidad como impulsora de cambios estructurales en la Comunidad Autónoma Vasca y Navarra* Oñati Socio-Legal series volume 13, issue 2, 253-276: Innovación legislativa en tiempos de excepcionalidad.
[HTTPS://DOI.ORG/10.35295/OSLS.IISL/0000-0000-0000-1338](https://doi.org/10.35295/OSLS.IISL/0000-0000-0000-1338)

LÓPEZ RAMÓN F. (1988) *Límites Constitucionales de la autotutela administrativa*. Revista de administración pública. 57-98.

MALGESINI, G. (2014): Informe sobre los sistemas de rentas mínimas en España, European Minimum Income Network. Comisión Europea.

MONEREO PÉREZ, J.L., RODRÍGUEZ ESCANCIANO, S. y RODRÍGUEZ INIESTA, G. (2023) «*Los nuevos retos de la protección de las personas dependientes tras las sucesivas reformas: dependencia como derecho social, economía de cuidados de larga duración y Sistema para la Autonomía y atención a la Dependencia*». Revista Crítica de Relaciones de Trabajo, Laborum. nº 6: 11-57

MONEREO PÉREZ J.L (2021) *El derecho social al ingreso mínimo vital* Universidad de Granada: temas laborales núm.158/2021. Págs. 45- 117

MONEREO PÉREZ J.L. et al. (2021) *Renta Mínima y Democracia sustantiva: De los 'derechos de pobreza' a los de 'ciudadanía social'* Jaén: Editorial Universidad de Jaén

MONEREO PÉREZ J.L. (2020) *La renta mínima garantizada como medida estructural del sistema de seguridad social en la sociedad de riesgo'* Revista jurídica de los Derechos Sociales.

<https://doi.org/10.46661/lexsocial.5074>

MORENO MÁRQUEZ A. (2018) '*Requisitos comunes para el acceso a las prestaciones autonómicas de garantía de ingresos*' Madrid: Temas Laborales 143/2018. 87-123.

REBOLLO PUIG M. (2013) La actividad inspectora. Actas del VIII Congreso de la Asociación Española de Profesores de Derecho Administrativo.

REBOLLO PUIG M. CARRASCO IZQUIERDO M. ALARCON SOTOMAYOR L., BUENO ARMIO A. (2005) *Panorama del derecho administrativo sancionador en España*. Revista Estudios Socio-Jurídicos 7 (1) 23-74.

RODRIGUEZ MARTIN, A. et al (2017). *Prácticas Innovadoras inclusivas: retos y oportunidades*. Oviedo: Universidad de Oviedo.

RODRIGUEZ DE SANTIAGO J.M. (1997) '*Los convenios entre Administraciones Públicas*', Madrid: Marcial Pons.

SÁNCHEZ MEDERO G. TAMBOLEO GARCÍA R. (2013) '*Política y derechos sociales en tiempos de crisis en España*' Madrid: Revista Castellano-Manchega de Ciencias Sociales

SÁNCHEZ MORÓN M. (2005) *Derecho administrativo: Parte General* Madrid: Editorial Tecnos.

SANTAMARÍA PASTOR J.A (2005) *Sobre derecho a la intimidad, secretos y otras cuestiones innombrables*. Revista española de Derecho Constitucional. <https://www.cepc.gob.es/sites/default/files/2021-12/24767redc015159.pdf>

TIRADO BARRERA J.A. (2011) Reflexiones en Torno a La Potestad de Inspección o Fiscalización de La Administración Pública.

PEÑA MIGUEL N. DE LA PEÑA J. FERNANDEZ-SAINZ A. (2017) *¿Es posible financieramente un pilar básico de previsión social para Euskadi? Factores claves*. Bilbao: Universidad del País Vasco.

URÍAS J. (2009) *Lecciones de derecho de la información*. Madrid: Editorial Tecnos.

ZARAUZ J. (2007) *'Incidencia del padrón municipal en el ejercicio de los derechos de las personas extranjeras en situación irregular'* Vitoria-Gasteiz: Ararteko.